

# Elizalderen *Apezendaco dotrina christiana uscaras*

PATXI SALABERRI\*

O. SARRERA

A spaldi honetan genbiltzan bere atzetik, baina ezin genuen inon ere harrrapatu, nahiz, egia erran, gure bilaketak ez ziren ez sakon eta ez jarraituak. Zorionez hara non, egun batean, Iruñeko “Diputazioaren liburutegia” delakoan lanari zegokion fitxa opatu genuen. Fitxa opatzea eta liburua eskatzea, dena bat izan zen. Handik lasterrera 1735eko argitalpeneko ale txiki polit bat genuen esku artean. Fotokopiatu eta etxean lasai irakurri ondoan, argitara eman behar zela erabaki genuen, euskal filologiaz arduratzen direnek Gesalazko Muzkiko (ez Imozko Muskitz edo Muzkizko) hegoaldeko goi-nafarreraz idatzirik dagoen obratxo honetaz goza ahal lezaten.

Gure asmoak Jose María Satrustegi nafar euskaltzainari jakinarazi bezain fite *FLV*-en argitara zitekeela idaroki zigun, eta sarrera egitea komeni zela. Baietz esatea erraza da, baina ez da horren erraza obratxo honetan azaltzen diren xehetasun guztiez jabetu eta ohartaraztea. Nolanahi ere, eta lana sakonki aztertutakoan, Manuel de Lecuonak aldizkari honetan berean argitara eman zituen XVIII. mendearen bigarren erdiko Muzkiko testuekin<sup>1</sup> erkaketa egitea beharrezkoa zela ikusi genuen (azken hauek aski euskara herrikoian

\* Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

1 “Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella”, *FLV*, 15, 1973, 369-390. orr. Testuok 1765 eta 1797 artean izan ziren idatziak, batz besta Elizalderen dotrina baino mende erdi bat beranduago.

izkiriaturik daude), Elizaldek bere herriko hizkera zer neurritz isladatzen zuten jakin ahal izateko.

## 1. ERKAKETA

Esperatzekoa zenez, asko dira Elizalderen obraren eta aurrerantzean “testuak” deituko ditugunen arteko antz eta eiteak. Hemen, eta dotrinak eskaintzen dituen ezaugarriarik nabarmenenak iruzkintzera igaro aurretik, bi lanon arteko ezberdintasun nagusiak zein diren ikusiko dugu. Ezberdintasun horiek testuek aurkezten duten herrikoitasun handiagoan dautza batik bat, dotrina punturik gehienetan norma literarioago bati jarraitzen zaion bitartean. Hau da, Elizaldek Muzkiko euskaraz ohizkoak bide ziren hainbat gertakari (fonetiko) baztertu zituen, lanari beste goragoko maila bat ematearren, antza. Denetan deigarriena, eta honekin hasten dugu alderaketa, dotrinan bokal-armoniarik ez agertzea da, testuetan indartsua delarik. Hain indartsua ezen armoniaren sortzailea den bokal itxia sekundarioa denean ere funtzionatzen baitu: *Jangoicueri* ‘Jaungoikoari’, 378, *Jangoicuengana* ‘Jaungoikoarengana’, 379,...

Atzeranzko bokal armonia ere bada: *arrapetuco zuela*, 380, *eramezute* (< *eramazute*, antza. 382), eta morfema muga ez da oztopo hersketa gauza dadin: *burueri* ‘buruari’, 379, *duzule* ‘duzula’, *duden* ‘dudan’, *ovequiogo* ‘hobekiago’, *lagunerequi* ‘lagunarekin’, 380... Zenbaitetan kontsonante sabaikariak ere herts dezake hurrengo bokala<sup>2</sup>: *bañe* ‘baina’, 379, 387, 388..., *oreñec* ‘oreinak’, 380.

Salbuespenak, halarik ere, ugariak dira: *baña*, 378, 380, 389..., *oreña*, 380, *nausia*, *mercataria*, *Jangoicoac*, *verria*, *infernura*, *vecatuaren*, 378, *Catolicua*, *escua*, 379, *vicia*, 380...

Diptongoen tratamenduan ere ezberdintasun bat baino gehiago ditugu: Elizaldek [e̞] diptongoa bere horretan gordetzen duen bitartean (*cein*, 32, *deitu*, 79), testuetan batzuetan behintzat [aj̞] bilakatzen da (*zain*, 378, baina *cein*, orrialde berean, *daitu*, *daicen*, 379, *daizera*, 381).

Aurreko joera horren kontrakoa den [aj̞] > [e̞] hersketa ere badugu zenbait aldiz testuetan (*saltacen baceizu*, 379, *ellegatuzeit* ‘ailega zaitetz’, 382, *arquitudique* ‘aurki daiteke’, 384, *orei* ‘orain’, *juzgatubeargueitu*, 386, *ucicembaceitu* ‘uzten bazaitu’, 388, *geizqui* ‘gaizki’, 388... hau normalean gertatzen ez den arren: *sarcen zaizu*, 379, *determinatu zait* ‘determina zaitetz’, *idurizaide* ‘iruditzen zait’, 382, *orai*, 386, *gaizqui*, 388...). Dotrinan honelakorik ez dago.

[e̞] diptongoaren osagai silabikoa ere irekitzen da batzuetan: *zauze*, *zauzen*, 379, 388, testuetan; *zeure*, 3, 5, 7... dotrinan; *gaure*, *gauzen*, *gaureganic*, *gaurenganic*, 386, testuetan, *neure*, 18, 19, 33, *geuren*, 5, 9, 81... dotrinan; *dausere* ‘deus ere’, 383 testuetan... Kontrakoa ere aurkitzen dugu inoiz edo behin: *geude*, 382, baina *zaude*, 382, testuetan; *zaude*, *gaude*, 5, 7... dotrinan.

2 Hau bustitzea gertatu aitzineko kontua izan daiteke, orobat.

[aʉ] sekundarioa monoptongatzeraino irits daiteke testuetan: *balinbado* ‘baldin badago’ (382), eta [we] sekundarioaren osagai ez-silabikoa galdu egin daiteke: *duze* ‘duzue’, 378, 382, 388, *eman dicet* ‘eman dizuet’, 372<sup>3</sup>, *cendaco*, 386, baina *zuendaco*, orrialde berean.

Beste diferentzia nabarmen bat Bonapartek *verbisatio* deitzen duena da. Hau autore honen arabera arrunta zen Gares, Elkano eta Oltzan<sup>4</sup>, eta Muzki-ko testuek ere garbi isladatzen dute. Hortaz, oraingoan ere Elizalde berari baztertu duela pentsatzeaz beste biderik ez dago: *galdeiteinzu* ‘galdegiten dizu’, 378, *errateinzu* ‘erraten dizu’, 379, *emateinzquizon* ‘ematen dizkizun, atra arazteintu’ ‘aterarazten ditu’, *jateintu* ‘jaten ditu’, *imaginaceintuzu* ‘imajinatzen dituzu’, *guardazeunt* ‘gordetzen dut’, *contenicenintu*, *errateinzuna*, 381,... Sabuespenak ere badira, ordea: *amenazacentu*, 372, *ematen baizu*, 379, *ematenizquizon* ‘ematen dizkizun’, 379, *ofreciceizu* ‘eskaintzen dizu’, 380, *ematen dizu*, 382...

Testuetan [s] + *herskari* elkarketan (hau sandhia nahiz hitz baten barne-multzoa delarik) txistukaria bere horretan gordetzen da eskuarki, [š]-ra igarotzen den adibideak badiren arren, Elizalderen lanean emaitzarik arruntena [š] + *herskaria* delarik: *eztago*, 378, *eztu izan bear*, *eztuzula*, 379, *ezta*, *eztu arquicen*, *eztuzu laster eguiten*, *eztauzquizu*, *eztidazu erranen*, *eztataiteque guertatu*, *eztezazula lucetu*, 380, *ezpalinba daique mudatu*, 372, *ezpaduce eguiten*, 378,... guztiak testuetan. Dotrinan, berriz, honelakoak dira ugariak: *estaquitenei*, 1, *zor gaitustenei*, 5, *emaste*, 6, *ilen orstea* ‘hilak ehorztea’, 12, *estu*, 20, *estire*, 32...

**Bustiduran** ere bada aldea dotrinaren eta testuen artean. Hauetan gehienetan [inV] > [iŋV] dugu, salbuespenak ugariak badira ere. Dotrinan beti [inV] > [inV] dugu: *fiñe*, *examiñatu*, 372, *eguiñen*, 373, *eñen* ‘eginen’, 374, (*Sn*) *Agustiñec*, 378, 379... testuetan, *eguinasgueros*, 22, *Virgina*, 6, 11, 22, *fina*, 25, 29, 96, *jaquinen*, 26, 27, *urrina*, 32, 73, 74,... dotrinan. Orobat, testuetan [ilV] > [iʎV] edireten dugu gutiz gehienetan, dotrinan [ilV] > [ilV] agertzen delarik: *illorduco*, *villatuco*, *milla*, 372, *illunduco dire*, *illarguie*, *illic*, 374, *ibilli*, *illavetes*, *illen*, 376, *mutille*, 378,... testuetan, *ilen ertetic*, 6, *vilacea*, 25, *ilic*, 39,... dotrinan.

Kontsonantismoan aurkitzen dugun beste ezberdintasun nabarmen bat **dardarkarien tratamenduari** dagokiona da. Testuetan [r] > [d] aldaketa maiz azaltzen da, dotrinan honelakorik ez dagoen bitartean: *zada*, 378, 379,

3 Bi adizki hauen jatorrian [wel] ote dugun seguru ez dakigu; jatorria *duzue*, *dizuet* nahiz *duzie*, *duziet* izan liteke: cf. *duzie* ‘duzue’, *diziet* ‘dizuet’, *diziegu* ‘dizuegu’ Oltzan, *duze*, *dizet*, *dizegu* Goñin eta Garesen, “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV*, 39, 1982, 133-220. orr (192-194. orr. bereziki), edo Lizarraga Elkanokoaren “*niri uzteñdázze lúrra*”, *DCC*, 47. or. / “*cergátic ezteñdázze sinestátzen*”, *UIGPL*, 48. or., *sinestazadázze* ‘sinesta iezadazue’, *DCC*, 89. or., *dióze* ‘diozue’, *UIGPL*, 87, / “*icusázze ta icasázze*”, *onetsizquicie* ‘maita itzazue’, *izanenducie*, *UIGPL*, 151, edo “*sinés diot icusicoduciéla daucazengau...*”, hots, ‘zinez diot ikusiko duzuela daukazuen hau...’, *UIGPL*, 13. or. XIX. mendearen bigarren erdian *duze*, *dizet*, *dizegu*, ditugu Elkanon berean, “Materiales...”, 192-194. orr.

4 *Opera Omnia Vasconice-I (OOV-I)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991, 424. or.

*arquicen zadaten* 'aurkitzen zareten', 380, *conjuratu zidan* 'kojuratu ziren', *arquitu zidan* 'aurkitu ziren', 381, *ibilididen* 'ibili diren', 384, *gueldituco dide*, 385, *edorico dire* 'eroriko dira', 389...

**Morfologiara** igaroaz, diogun Elizalde **partitiboan** beti **-(r)ik** duela, testuetan **-rik** zein **-riken** (< \*-rikan, bokal-armoniaz) ageri direlarik. **Ergatibo pluralean** Elizalde beti **-ek** dauka; testuetan, aldiz, bokal-armonia indartsuak ez digu hondarkia zein den ikusten uzten, hemen ere **-ek** dela irudi duenagatik<sup>5</sup>. **Datibo plurala** **-ei** da gehienetan dotrinan, eta **-eri** behin edo beste. Testuek, berriz, **-eri** eta **-egi** dute (**-ogi** plural hurbilean). Kasu bera **-ri** da Elizalderen lanean mugagabeko adibide bakarrean, **-i**, **-eri** eta **-egi** testuetan.

**Genitibo singularrean** Elizalde **-aren** du eskuarki, **-an** laburtua inoiz edo behin. Testuek, beren aldetik, **-aren** (**-eren** bokal-armoniaz) osoa dute batzuetan, baina **-an** (**-en**, bokal armoniaz) laburtua ere maiztasun handikoa da. Mugagabeen Elizalde beti **-ren** du, eta testuek **-(r)en** eta **-n**.

**Instrumentalean** ere ez dute berdin jokatzeko dotrinak eta testuek. Lehenak beti **-as** (sing.) **-es** (pl.), **-(e)s** (mugagab.) du; bigarrenak, aldiz, **-as** (**-az** behin, sing.), **-es** (pl.), **-(e)s**, **-(e)z** (mugagab.).

**Motibatibo singularrean** Elizalde **-agatik** eta **-arengatik** dauka; testuek **-agatik** (**-egatik**, bokal armoniaz) baizik ez, oker ez bagaude.

**Bizidunetikiko adlatibo soileko singularrean** Elizalde beti **-arengana** aurkezten du. Testuek forma oso honetaz landara (**-eregana** ere bada, bokal-armoniaz) **-angana** (**-engana**, bokal-armoniaz) laburtua ere badute.

**Ablatibo pluralean** eta izenordainetan Elizalde **-etatik** besterik ez du. Testuetan ohizkoena aldaera hori izanagatik, **-etati** (behin<sup>6</sup>), eta **-etarik** (**-eterik** atzeranzko bokal-armoniaz, behin) ere badugu. Izenordainetan, era berean, **-tarik** nahiz **-tatik** dugu.

**Bizidunetikiko ablatibo singularrean** Elizalde beti **-arenganik** du; testuek forma honetaz landara (**-erenganik** itxurapean ere azaltzen da, bokal-armoniaz), **-anganik** laburtua eta genitiborik gabeko **-aganik** (**-eganik** bilakatua, bokal-armoniaz) ere badute.

**Juntaduran**, dotrinan, deklinabide hondarki bera duten bi (edo hiru) osagaietatik lehen biek gal dezakete (edo bestela esan, ez dute hartzen), azkenak baizik gordetzen ez duelarik. Morfema konposatua denean lehen osagaiak zati bat atxikitzen ahal du: *igande eta jayetan*, 9, *vicien, eta ilengatic*, 13, *peligro, necesidad, edo tentacioan*, 24, *Lembicico irurac Jangoycoaren, eta berce laurac guretaco*, 43, *arimaren eta gorpuzarendaco*, 44, *Gorpuz, eta arimarequi*, 49,... Dotrinan honelako mordoxka bildu dugu; testuetan aldiz pare bat baizik ez: *bosque edo oianetan*, 374 (hitz adierakideak dira, gainera), *su eta garrean*, 380.

**Aditzaz** den bezainbatez, Elizalde **ahalezkoan** aditzoina ibiltzen du normalean, salbuespenak badira ere. Testuetan, ordea, partizipioa du lagun. Geroa egiteko **-n-z** amaitu aditzetan **-en** morfema osoa ibili ohi du Elizal-

5 Gainera, Elizalde iyor 'inor' eta yorc ez 'inork ez' besterik ez duen bitartean, testuetan iorere, inior ditugu absolutuan, eta iorquere, iorc ez, iniorec ere ergatiboan.

6 Cf., gainera, *emendi* 'hemendik', 385, *batetic*, 373, 380 / *bateti*, 385.

dek, eta behin honen aldaera laburtua (*egoinlizaque*, 75). Testuek **-en** forma osoa dute batzuetan, baina honen aldaera laburtua ere maiz aski edireten dugu: *eztidazu erranen*, 380, *juanen dira*, *egonen da*, *izanen dire*, 385 / *izainda*, 372, *egoindire*, 373, *erraindiote*, 374, *izaiñ lizaque*, 378,... Behin, gainera, genitiboaren morfema dugu, egun Iparraldeko zenbait tokitan bezala, bokalez bukatutako adizkian: *etorriren da*, 383. **-Ko** morfema duten geroetan sinkopa aldi bakar batez gertatzen da dotrinan (*icuscodute*, 17, baina *icusicozara*, 72), hirutan testuetan (*izulcodu* 'itzuliko du', 375, *izulco naiz*, 379, *etorcoda* 'etorriko da', 380).

Iraganean Elizaldek beti **-n-rik** gabeko adizkiak ibiltzen ditu: *ilce* 'hil zen', 3, *deicence*, *eracutsizue*, 22, *eguynzue*, *etorrice*, *cego*, 30,... Testuetan ere iraganek **-n** galtzen dute, baina behin edo beste **-n-dun** adizkia edireten dugu: *arquitu cidan burlaturic* 'aurkitu ziren burlaturik', 381.

**Partizipioan -tu** morfema erredundantea aurkitzen dugu testuetan zenbaitetan: *egonduce*, 376, *jaquinduzue*, 381, *egonduda*, 382, *botatu dezazquigun*, 386. Elizaldek, berriz, ez du horrelakorik: *egon*, *ibili*, 94. Pare bat aldiz **-tu** ren ordez **-du** dugu testuetan, morfema hau ozen ondoan ez dagoelarik: *moguiduco dire*, 383, *botadu dezazquigun*, 386<sup>7</sup>. Katiximan honelakorik ez dugu.

**Nominalizazioari** dagokionez, Elizalderen lanean mordoxka dira genitibodun osagarri zuzena eskatzen duten aditz-izenak, nahiz eraikidura mota hau derrigorrezkoa ez den: *gure salvaceco*, 3, *ilen*, eta *vicien juzgacera*, 6, 12, *ilen orstera*, 12, *injurien barcacea*, 13, *lagunaren ilceco*, 55, *becatuen confessaceco*, 70,..., baina halaber: *gu atraceco*, *guruce andibat eguitea*, 3, *eriac visitacea*, 12, *gu oblicaceco*, 77. Testuetan genitibodun osagaia duten aditz-izenkiak anitzez urriagoak dira.

**Paradigmatara** igaroaz, derragun maiz ezberdintasunak gorago aipatu gertakari fonetikoei edo hizkera mintzatuaren abiadurari zor dakizkienagatik (*daucazu* Eliz. / *dauquezu* test., *zeuca*, Eliz. / *zauque-* test., *zeude* Eliz. / *zaude* 'zeuden' test., *zara*, *da*, *gara* Eliz. / *zada*, *da*, *de*, *gada*, *dire*, *dira*, *dide* test., *doaie* Eliz. / *duei* test..., *dut*, *duzu*, *ditu*, *ditugu*... Eliz. / *-ut*, *duzu*, *-zu*, *ditu*, *-itu*, *-itugu*...) hau ez dela beti horrela, hots, morfologia ezberdintasunak ere badi-rela. Hauetan inportanteena **di-** erroko (\**edin*) **-ki-**dun indikatiboko lagun-tzaileen erabilera da.

Erabilera hau arrunta izan da hegoaldeko goi- nafarreraz, Bonaparteren lanetan ikus daitekeen moduan<sup>8</sup>, eta erabilia da oraindik Aranatz eta Ergoiena aldean<sup>9</sup>, baina ez dugu sekulan opatzen Elizalderen lanetan: *deycenzayo*, 30, *tocacen zaizquiote*, 60, *convenicicaigu*, 38. Testuetan, ordea, *izan* eta \**edin* batera ibiltzen dira orainean, iraganean azkena (\**edin*, alegia) bakararra delarik: *salta-cenbaceizu*, 379, *gueldicen bazaio*, *faltacen bazaizu*, 380, *idurizaide* 'iruditzen zait', 382, alde batetik, *cumplituco daquiote* 'beteko zaie', 372, *faltatu deiquiote* 'faltatu zaie' (itxuraz), 380, *aterabeadaquio* 'atera behar zaio', 388, *sucedicen-*

7 *Diabru*, 374, eta *demonio*, 375, nafarrekin batera *demoniño*, 374, darabil behin.

8 Ikus OOV-I, 436-437. orr., eta "Materiales para un estudio...".

9 Ikus *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañaz Elkarteko Hiztegia*, KARASATORRE eta beste, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla, 1991, eta "Lizarragako euskararen azterketa", G. SOLIS SENAR, *FLV*, 62, 1993, 95-123. orr.

*daquiote* ‘gertatzen zaie’, *gogorcendaquiote* ‘gogortzen zaie’, 389, beste aldetik, orainean. Iraganean, esan bezala, beti \**edin* dugu: *ezcequiote la falta* ‘ez zitzaie-la falta’, 375, *guertatucequio* ‘gertatu zitzaion’, *imaginatu otezikiote* ‘bururatu ote zitzaion’, *gertatuco cequioela* ‘gertatuko zitzaie-la’, *suceditucequiote* ‘gertatu zitzaion’, 381, *etorri cequio* ‘etorri zitzaion’, 387, *suceditu cequiote* ‘gertatu zitzaion’, 388, *iduricencequio* ‘iruditzen zitzaion’, *barcatuco cequizquiola* ‘barkatuko zitzaizkiola’<sup>10</sup>, 390.

Subjuntiboko orainean ere badira ezberdintasunak dotrinaren eta testuen artean: lehenak *gueldidadila*, 44, *disponi gaytecen*, 77, *oroit gaitecen*, 89, duen bitartean, testuek Elkanoko Lizarragaren lanetan ere arruntak diren adizki sinkopatuak eta *-di-*ren ordez *-y-* duten formak ditu<sup>11</sup>: *vicitu gaicen* ‘bizi gaitezen’, 372, *ateradaizen* ‘atera daitezen’, 373, *confesatu dayela* (< \**konfesa* *dadiela*) ‘konfesa dadila’, *preparatu gaicen* ‘presta gaitezen’, *arquitudiceicen* ‘aurki daitezen’, 383, *disponitudaien* ‘presta dadin’, 384, *apartatu deien* ‘aparta dadin’...

Agintekeran Elizaldeek zer-nori-nork sailean (*eman*)*dazaguzu* ‘(eman) iezaguzu’, (*barca*)*dazquiguzu* ‘(barca) iezazkiguzu’, 5, 44, bezalako adizkiak ditu. Testuetan, aldiz, (*condeditu*)*zaguzu* ‘(eman) iezaguzu’, 375, (*erran*)*zadazu* ‘erran iezadazu’, 378, (*adi*)*zoze* ‘adi iezazioze’, 380, *erranzozu* ‘erran iezaziozu’, 382... bezalakoak ditugu<sup>12</sup>.

Joskeran ere badira ezberdintasunak:

Konpletiboetan Bernat Etxeparek, Axularrek eta bestek darabilten<sup>13</sup> eta Baztan aldean eta bestetan oraindik arrunta den *uste* + *-en* moduko eraikidura dugu testuetan: “*manacenzue...equenducequiote la vicie, ustes guisa ontan illen cituen viec, eta guerostic gueldituocela veldurric gabe*”, 376.

Kausazko perpausetan Elizaldeek *zergatik*, *zergatik...-en* izaten du, eta behin *zergatik...bait-* du. *Bait-* hutsa aldi bakar batez ediren dugu. Testuetan *zergatik* eta *zergatik...-en* dugu, baina ez *zergatik...bait-*en modukorik. *Bait-* hutsa duten esaldiak lau dira hemen. Testuotan dotrinan ageri ez den

10 Fco. Ondarrak argitara eman Goñerriko testuetako batzuetan *-di-* errotik hurbilago dauden *-ei-* (< \**-edi-*)dun aldaerak ditugu. Cf., adibidez, *erran cequiote la* ‘eran zitzaie-la’, *idurico ceiquegu* ‘irudituko zitzaigun’ (baina *salta cequigun dembora*, orrialde berean), *cer guertatu cequion* ‘zer gertatu zitzaion’, “Goñerrin aurkitutako beste sei testu”, *FLV*, 57, 1991, 131-168. orr. Adibideok 141, 146, eta 152. orrialdeetatik atera ditugu. Cf. Elkanoko Lizarragaren *salvabaleites*, *manabaleitez-en* modukoak, *UIGPL*, 134. eta 136. orr.

11 Lizarragak, halaz ere, *-di-*dun adizkiak ere ibiltzen ditu, *-y-*dunen aldamenean. Cf. *eztáien águi díóna Profetac*, *eztú bere Magestadeac utzico ilumbetán galdáien*, *DCC*, 29. eta 56. orr. / *aguieztádien*, *detenidádien*, *UIGPL*, 69. eta 144. orr.

12 Hauek ibiltzen ere dituen *egozagun* ‘egotz ditzagun’, 376 (baina *eztezagun lucetu* ‘ez dezagun luza’), 373, *escazagun* ‘eska dezagun’, 378, *-ren* moduko adizki laburtuak direla pentsa daiteke.

13 Bernat Etxeparekoren *Kontrapas* ezagunean ageri da: *Bertze jendeke uste zuten / ezin skriba zateyen*, *Olerkiak*, Txertoa, Donostia, 1978, 154. or. Axularrek ere antzera: “*ustez ezen ibizia sarean zuen*”, Gero, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1976, 437. or. Elkanoko Lizarragak ere, denboran eta espazioan Elizalderengatik hurbilago, ibiltzen ditu horrelakoak: “*Abadeac bada ustés ematen ciquen penitencia leveéna erráncio...*”, “*engañatzenbaitire ásko, ustés dágon errézu ta devocioetán*”, “*ustés násqui ezi oraico vicigóntan Jangoicoarénac triste nequetán izaindíren gücís...*”, “*ustés dágon urrúti eriótzea, ...*”, *UIGPL*, 136., 156., 170., eta 171. orr.

*iakē(ta)...-en* eraikidura sei aldiz aurkitu dugu: “O, nere jauna, ya que ta ez gaden digno zure erreñura juateco...yaqueta igorten (?) gaituzun zureganic...”, 375<sup>14</sup>.

Denborazko perpausari dagokienez, Elizaldekin beti *partizipioa* + *arteo* ibiltzen du, testuetan *partizipioa* + *artean*, *barik eta...* + *partizipioa* + *artean*, *arteño* dugun bitartean. Era berean, eta sail honetan, Elizaldekin *partizipioa* + *-as geros* erabiltzen du, eta testuek *adizki jokatu* + *-en* + *eskeros* nahiz *partizipioa* + *-eskeros*. Elizalderen *-as (geros)* hori ultrazuzenketaren fruitutzat har liteke, hots, zera pentsa liteke, autore horrek normalean *-es geros* erraten zuela, baina bokal-armoniarari zor zitzaiolako ustetan *-es-ez* ordezkatu zuela<sup>15</sup>. Testuinguruak, gainera, lagundu egiten du, ediren ditugun hiru adibideetan bokal irekiaren aurrean bokal itxietako bat azaltzen denez gero. Guztiarekin ere, gogoratu behar da Elkanoko Lizarragak ere *-as geros* ibili ohi duela<sup>16</sup>, eta beraz, garbi ikusten da ez gaudela Elizalderen zuzenkizun baten aitzinean.

Kontzesiboetan ere badira ezberdintasunak: Elizaldekin beti (*balin*)*ba...ere* ibiltzen du; testuek honen aldaerak diren *barime...ere*, *baliba...ere*-z landa *aunke...barime (ere)* eta *nabiz* + *aditz jokatu* + *-ela* ere ibiltzen ditu.

Moduzkoetan Elizaldekin *-en bezala* dauka, eta testuek *-en bezala* (normalean), *-en bezela* (behin edo beste), eta *ala nola* (behin).

Baldintza adierazteko dotrinan beti *ba-* edo *balinba-* dugu; testuetan hauetaz gainera (*balinba-*, *baliba-*, *barima-*, *barime-* itxurez azaltzen da) behin *baldiñetan...ba-* dugu: *baldiñetan...ezpadu opacen*, 380<sup>17</sup>.

Ondoriozko perpausetan ere alde zerbait bada: dotrinak *bain...ezi* egite du, eta testuek *bain...eze*: “*Cein bearra da ayen sinestatzea? / Ain bearra, ezi ayen Fedea bague, ezin yor salba daique*”, 28, / “*ain Andia izainda trompeta arren sonidoa, ece, aituco da zeruen eta infernuen, eta ain eficaza ece obedituco diote...*”, 374.

Alderaketan Elizaldekin egungo euskarako *baño...-ago* (edo *-ago...baño*) besterik ez du ibiltzen. Testuetan, ordea, honetaz landara *-ago...eze* ere ediretan dugu: “*gutiago sentitucoluque anima egotea padecicen infernuco tormentu guciec ece egotea desamparaturic Jangoicuerenganic*”, 387.

**Hiztegi** arloan ere badira diferentzia batzuk bion artean:

Elizaldekin: *atra*, *aurpegi* (behin), *batbedra* ‘bakoitza’, *bedeikatu*, *bezala*, *eguegun*, *emaste*, *quendu*, *eraman*, *eskui*, *geiago*, *guti*, *igan*, *Jangoikoa* (eskuarki)-*Jaunjoikoa* (bitan), *jausi-jaitsi*, *ofratu-ofrezitu*, *oroitu*, *sinestatu*.

14 Lizarragak ere ibiltzen du eraikidura hau: “*Errúcára ('zailantza') dirudi, báña jang(oico)ai zordiógú anitz, eta yaqueta eziógun zervítzu ándiac eguiten...*”, UIGPL, 153. or. Egun ere bizirik dago Nafarroan, Goizuetan, esaterako.

15 Berrianean *-(e)s geros* ibiltzen du beti, mende bat lehenago.

16 Cf. *ilasguéros, erresucitatuasguéros*, UIGPL, 136. eta 147. orr.

17 Cf. Ezkabarteko euskaraz idatzia bide dagoen (hegoaldeko goi-nafarrera dela behintzat segurua da) Orriko 1750eko testuko *baldiñetarian...ba-*: “*Eta baldiñetarian norbait contra etorcen baliz, publica dezatela escomicatutzai*”, JOSE MARIA SATRUSTEGI, *Euskal testu zaharrek-I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987, 80-81. orr. Lapurteraz idatzi zuen IOANNES DE HARNEDERREK (*Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Patxi Altunak paratu argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990) *baldin...ba-*ren ondoan *baldiñetan...ba-*, *baldiñetarian...ba-* hauekin lotua dagoen *baldiñetariak...ba-* ibiltzen du XVIII. mendean. Elkanoko Lizarragak *ba-*-z gainera, *baldin...ba-* eta *barinba-* ibiltzen ditu, gutxieneko kontuan.

Testuek: *atra-atera, aurtegi, bapera, bedikatu, bezala-bezela, egun, emakume, ekendu, eraman-eramo, eskubi, geiago-iago, guti (normalean)-gutxi (behin), igo, Jangoikoa, Jaichi, ofrezitu, oreitu, siñista(tu)-sinistetu-sinistatu.*

## 2. ELIZALDEREN LANAZ

Elizalderen lana, azken urteotan agertzen ari diren Nafarroako euskal testu guztiak bezala, itzulpena da, eta itzulpena den aldetik akats nabarmen batzuk ditu, horien artean azpimarragarriena hitzen ordena “erdalduna” dugarik. Beste akats batzuk, ordea, inprimategiko oker hutsak dira. Hona hemen hauen zerrenda: *Sauduaren* “Sanduaren”, 36, *jacay* “jayac”, 53, *particulare* “partikulare”, 59, *colaciac* “colacioak”?, 64, *jangoycao* “Jangoycoa”, 68, *becntu* “becatu”, 82, *Aptitu* “Apetitu”, 84, *chridade* “charidade”, 88, *eguiteco* “egoteco”?, 90. Gainera, 72. orrialdean lerro batzuk aldatuak daude: Err. (‘Errespuesta’) *Ez: baycic errealida- / dean, bera bere sustan- / Gal.* (‘Galdera’) *Non dago Christo? / cian.* Ikusten denez, ordena zuzena hau da: Erre. *Ez: baycic errealida- / dean, bera bere sustan- / cian. / Gal. Non dago Christo?...*

### 2.1. Grafia

Soinuak:	Grafemak:	Adibideak:
[š]	ss, s(?)	<i>onelasse, berlasse</i> (4) baina: <i>Missionero, Confessore</i> (1), <i>gaisto</i> (3)
[s]	c, z	<i>apecec</i> (1), <i>obligacio, arracio, lembicicoa</i> (2), <i>ceure, daucazu</i> (3), <i>eguinzazu</i> (4)...
[š]	s, ss	<i>Uscaras, Missionero, Maistru, Españaco, Confessore</i> (1), <i>Semearen, Sanduaren</i> (4)
[č]	ch	<i>Ecbean</i> (1), <i>Echidetea</i> (25)
[c]	tc, c, z, tz	<i>leitcen, explicatceco</i> (1), <i>Salcen da</i> (1), <i>otoiz</i> (7), <i>idiquicera, gurucera, salvaceco, viozaren...</i> (3), <i>itzetatic</i> (3), <i>Gurutce, libra gaitzazu, Salvazaizala</i> (4), <i>libera gaizazu gaicetic</i> (5)
[č]	s, ts, ch	<i>jausi</i> (6), <i>eracutsi</i> (7), <i>onesicea</i> (8), <i>autsi</i> (37), <i>jauchi</i> (38), <i>jaichi</i> (39), <i>onetsiceco</i> (89)
[k]	c, qu	<i>daquitenec, eracusteco</i> (1), <i>Copetan</i> (3)
[x]	g, j, x	<i>Erreligioso, generalean</i> (1), <i>Jaun, Jangoycoa</i> (4), <i>Jesus, jausi, jarriric</i> (6), <i>proximo</i> (8)
[g] [g]	gu, g	<i>Erregueren, Alargunaren</i> (1), <i>santiguatu</i> (3)
[ŋ]	yn (?), ñ	<i>baña</i> (36), <i>bayna</i> (40)



## 2.2. Fonetika-fonologia

### 2.2.1. Bokalismoa

#### a. Hersketa

Bokal hersketa hurrengo hitzetan edireten dugu: *biar*, 3 (baina *bear* gaine-rako guztietan, 94. orrialdean, kasu), *iduiqui*, 3, 21, *iguzquia*, 34, *desterru*, 7, *provehu(arendaco)*, 8, *conseju*, 13, 80, 88, *aposentu(an)*, 37, *dañu*, 57, 82, *amentu*, 67, *tropezu(ac)*, 80, *Apetitu*, 84, *trabaju(etan)*, 84. Hauen ondoan hersketarik jasan ez duten hitz hauek ditugu: *Articulo*, 10, *Capitulo*, 21, *testigo*, 52, *secretoa*, 58, *injusto*, 57, *aumento*, 67, *errecato(arequi)*, *dicho(ac)*, *uso* 'ohitura', 80, *sentido*, 90, *seguro*, 95.

#### b. Asimilazioa

Gorago esan moduan, ez dago bokal-armoniarik. Bokal-asimilazioa hitz hauetan aurkitu dugu: *erte*, 6, *merigimentu*, 78, *sinistacea*, 11, *podore*, 26, 76, baina hauen aldamenean *arte*, 76, 87, *mereji*, 7, *meregimentu*, 79, 87, 89, *sines-tacea*, 10, 11, eta *poderosoa*, 10, 33, ere baditugu.

#### c. Disimilazioa

*Lembecico*, 8, 9, 10, 11... dugu, baina *lembicicoa*, 3, 9, 10 ere bai. *Errecebitu*, 66, forma bakarra da.

### 2.2.2. Diptongo eta hiatoak

-eu > u laburketa dugu *uscara*, eta *uscaldun*, 1, hitzetan.

-au batzuetan bere horretan gordetzen da: *aurpegi*, 96, *jaungoycoa*, 77, 80, eta beste batzuetan sinpletzen: *arquicenbadu*, 67, *Jangoyco*, 4, 22, 25, 29, 42...

-oa (diptongoa edo hiatoa) > wa. Behin bakarrik ediren dugu: *Cer disposi-ciorequi juan bear da?*, 76. Cf., halaz ere, "*Joan bear du...icisus*", 94. Kontrakoa ere badugu, hots, wa > oa: "*Cergatic goardacen da....?*", 77, "*goardacen ditue-nac*", 88, baina "*Obequi guardaceco*", 89.

-ei diptongoa dagoen-dagoenean gordetzen da: *deytcendire*, 79 (cf. testuetako eta beste toki batzuetako *daitu*, *zain*... Ikus *Erkaketa* atala), *bedeicatu* (*bedicatu* testuetan) 6, 17, 78.

-ea hiatoa bere horretan gordetzen da behin ez beste guztietan (ikus *Bokal-bategitea* atala).

### 2.2.3. Bokal-batze, erortze eta garatzea

#### 2.2.3.1. Bokal-bategitea

e + e > e: gehienetan gauzatzen da: *len(ago)*, 30, 39, 83, *virtutequi*, 86, *andrequi*, 54, *ezindezaquenac*, 57, *genden artean*, 64, *seglarey*, 71,... baina salbuespen gutxi batzuk ere badira: *Andreec*, *Semeequi*, 54, *Virtuteen*, 92.

a + e > a: *gorpuzare* ‘gorputza ere’, 49, *alare* ‘hala ere’, 71, *odolare bay* ‘odola ere bai’, 74. Baina *Bienaventuranzaen gañean*, 92<sup>18</sup>.

a + a > a: *alduen partea*, *alduen becala*, 57.

o + e > oi: *egoinlizaque*, 2.

#### 2.2.3.2. Aferesia

Eskuarki ez da gertatzen: *emaste*, 6, *eraman*, 75, *eman*, 12, 66, 77..., *etorri*, 30, 68, 95, baina *eguinzazu*, 4, 6, *otoiz eguinzazu*, 6, *itzulizazu*, 7,...

#### 2.2.3.3. Anaptisia

Behin aurkitzen dugu latinetikako *guruce*, 3, 39, 96, maileguan. *Trinitate*, 5, 36..., eta *libru*, 96, hitzetan berriz ez da agertzen (ikus beherago)<sup>19</sup>. Beste batean pareta daukagu: *liberagaizazu*, 5, / *libratceco*, 3, baina dimorfismo honen arrazoia maileguaren iturria izan daiteke, alegia, sorburua gaztelaniazko *liberar* izan daiteke lehen kasuan, eta *librar* bigarrenean.

#### 2.2.3.4. Apokopea

Behin bakarrik aurkitu dugu adizki batean: *batec eraman baliz* ‘eraman balitza’.

#### 2.2.3.5. Metatesia

Pare bat hitzetan daukagu: *bague*, 4, 5, *pedricu*, 60.

#### 2.2.3.6. Paragoea

a. Gaztelaniaz **-al-**ez amaitzen diren hitz mailegatuek euskaraz **-ale** dute ia beti: *señale*, 12, 66, *originale*, 12, 67, 82, *corporale*, 12, 89, 90, *espirituale*, 12, 15, 66, 77, *capitale*, 13, 81, *mortale*, 13, 51, 81, 82... eta beste hainbeste, baina noiz edo behin bokal paragogikorik gabeko adibideak ere baditugu: *mortalaren*, 83, *principalac*, 22.

18 Cf. Lizarragaren *ozcaen* ‘hozken’: “*Israeldárrac desértuan serpienteén ozcaen cásoz zoézi iles*”, *UIGPL*, 145. or.

19 Elkanoko Lizarragak ere *libru* darabil, *UIGPL*, 141., 162., 163. orr.

b. Gaztelaniaz **-ad**-ez akitzen diren hitz mailegatuek **-ade** dute euskaraz: *humanidade*, 10, 11, *divinidad*, 10, 39, *charidade*, 14..., *castidade*, 14, 88, *liberalidade*, 14, 84, *eternidade*, 30,... Mailegu zaharra denean latineko **-tate** atxikitzen du: *Trinitate*, 5, 36.

c. Erdaraz **-ar**-ez bukatzen diren hitz mailegatuak **-are**-z bukatzen dira euskaraz: *particulare*, 59, *manjare*, 72...

d. Erdaraz **-or**-ez amaitzen direnek euskaraz **-ore** dute: *Confes(s)ore*, 18, 53, *Criadore*, *Erredentore*, 19, *Salvadore*, 22, *colore*, *sabore*, 32, *amore*, 34, 49, 69,...

e. Kasu batean gaztelaniazko **-ed**-i **-ede** dagokio euskaraz: *merchede*, 89...

f. Beste batean gaztelaniazko **-ol**-en ordez **-ole** izan genezake euskaraz: *arbolean*, 92, baina hau, bistan denez, ez da segurua<sup>20</sup>.

### 2.2.3.7. *Protesia*

Mailegu berrietan hitza [ɾ]-z hasten denean bokal protetikoa gehienetan edireten dugu: *erreligioso*, *erretore*, *erreina*, *erreal*, 1, *erresurrecioa*, 7, *erredimicea*, 12, *Erredentorea*, 19, *erresucitatu*, 40, *erremedio*, 43, 80, *erreverencia*, 44, 48, *erregla*, 46, *errecebitu*, 66, *errecatoa*, 56... baina salbuespen bat edo beste bada, ordea: *racional*, 37, *reverenci*, 54.

Mailegu zaharretan ere bokal protetikoa aurkitzen dugu: *errege*, 1, *arracio*, 3, 88, *Erroma*, 61. Orobat s- aitzinean: *ezpata*, 40.

### 2.2.3.8. *Sinkopa*

Hurrengo hitz hauetan gertatzen da: *atra*, 3, 34, ..., *bedrazi(garrena)*, 8, 17, 83, *icuscodute*, 17 (baina *icusicozara*, 72), *andre*, 54, *abras(-teco, -tasun)*, 77, 92, *orla*, 51, 52, 79, *batbedrari*, 87, *berlasse*, 96, *dramana* 'daramana', 96, *onlasse*, 19, 32, *ontaco* 'honetako', 93, 'honetarako', 94, *libru*, 96<sup>21</sup>.

Beste batzuetan, aldiz, ez da ageri: *onelasse*, 4, *pasatu*, *passacen*, 11, 20, *obere*, 80, 92, *barrenean*, 80, 81.

### 2.2.4. [j]-ren bilakaera

Hitz hasieran beti, izan daitezen euskarazko aspaldiko hitzak, izan daitezkeen mailegu berriak, [x] dugu: *jangoyco*, 4, 5, 6..., *Jaun(a)*, 6, 73..., *Jai*, 6, 11, 37, 66..., *jausi*, 6, 11, *jauchi*, 38, 39, *jaichi*, 39, *jarriric*, 6, 11, *jayac*, 8, 9, 53, *jatera*, 12, 63, *jateco*, 72, *jan*, 85, *jabe*, 16, 57, 92, *jaquin*, 26, 58, 59, 60, *jaquitera*, 27, *joaten*, 39, *joan*, 94, 95, *juan*, 76. Maileguetan berdin: *Jesus*, 5,

<sup>20</sup> Arbole genuen Elkanon, Garesen, Oltzan eta Goñin, bai eta seguruaski Muzkin ere. Ikus FCO. ONDARRRAK argitara emandako "Materiales para un estudio...", 147. or. Lizarraga Elkanokoak, halaz ere, *arbola* (baina *arboledía*) ibiltzen du. Ikus, adibidez, *UIGPL*, 71. eta 180. orr.

<sup>21</sup> Hau sinkoparen ondorena izan daiteke, baina hitzak anaptisirik pairatu ez duela ere kontu egin daiteke.

6..., *justicia*, 16, 58, (*Jaun Done*) *Joaniz*, 18, *justo*, 39, *juntatu*, 39, *juntacen* 70, *juramentu*, 8, 52, *juracenda*, 52, *juycioan*, 53, *junta*, 61.

-Hitz barrenean [j] ongi mantentzen da: *batayatu*, 67, *deyes*, 7, ...

## 2.2.5. Kontsonantismoa

### 2.2.5.1. Bustidura

#### -Asimilazio-bustidura

-[inV] > [inV] dugu: *dotrina*, 1, 22, 54, *sinestacea*, 10, 11, *Sinistacea*, 11, *eguinasgueros*, 22, 94, *Virgina*, 6, 11, 22, 46,  *fina*, 25, 29, 69, 96, *jaquinen*, 26, 27, *urrina*, 32, 73, 74, *imaginey*, 48, *adina*, 64, *Cer finetara*, 88.

-[inV] > [ɲV] dugu: *bularretaraño*, 4, 24, *berceraño*, 4, *gañetic*, 8, 9, 19, 22, *gañean*, 25, 41, *oñetan*, 14, 94, *baña*, 22, 36., 68, 70..., *baño*, 22, 30, 40, 74, 86..., *oraño*, 75, *zañac*, 87, baina ez beti: *ceynetara*, 39, *ceinetan*, 94, *beinere*, 95. Maileguetan ere bai: *erreñua*, 5, baina ez beti: *erreytua*, 17. Gainera *erreytua*, 1, 47, dugu.

-[inV] > [iɲV] dugu behin edo beste: *beñere*, 19, 58.

-[inC] > [inC]: *eguin zazu*, 6.

-[in<sup>#</sup>] > [iɲ<sup>#</sup>]: *soin*, 4, 24, *cein*, 32, *bein*, 9, 63, *ain*, 77, *edocein* 88, baina [in<sup>#</sup>] > [iɲ<sup>#</sup>] ere badugu: *beñ*, 94.

-[in<sup>#</sup>] > [in<sup>#</sup>]: *fin*, 58, *berdin*, 95, *galdeguyn*, 53...

-[iɲ<sup>#</sup>] > [iɲ<sup>#</sup>]: *choil*, 55, 59, 93.

-[ilV] > [ilV]: *ilen ertetic*, 6, *vilacea*, 'bilatzea', 25, *ilic*, 39. *Isspilu*, 33, mailegutan ere debustidura gertatu da.

-[ilV] > [iɲV]: *billusiric*, 12<sup>22</sup>.

-[ilC] > [ilC]: *ilzute*, 6.

-[iśC] > [iśC]: *Nic isspiluan* (cf. Onlase) *eguitendudan becala neure iduria*, 33. Ez da segurua.

#### -Maileguak

Maileguetako soinu bustiak dauden-daudenean gordetzen dira: *ceñacea* 'aitaren egitea', 3, 23, *señalea*, 12, 66...

### 2.2.5.2. Hasperenketa

Hasperenketa den -g- dugu *agoa* 'ahoa', 3, 13, eta *iguesitea* 'ihes egitea'<sup>23</sup>, 80, hitzetan.

22 Jatorria \**bilusirik* bada bederen. Cf. *bilustu* Goñin, FCO. ONDARRA, "Textos en vascoence en el pueblo de Goñi", *FLV*, 49, 1987, 117-140. orr.

23 Lizarragak ere *igues* darabil. Cf. "*sarcendá ilzálea odolestaturic igués justiciaganic...*", *UIGPL*, 154. orr.

2.2.5.3. *Herskariak*

Mailegu zaharretan hitz hasieran herskari ahostuna dugu maiz: *gurucifiatu*, 6, *barcacioa*, 7, *barcatu*, 67, *becatu*, 7, 67, *becatari*, 7, *gauza*, 8, 33, *Bazcoa*, 9, *Garizuma*, 9, *guruze*, 39, 96, *butzu*, 39, *gorpuz*, 37, 39, 40, 41, baina ez beti: *corpucic*, 34, *Trinitate*, 5, 36, *Comecacioa*, 10... Mailegu berrietan ahoskabea nahiz ahostuna izan dezakegu, gaztelaniaz zer dugun: *concebitu*, 6, *Criazale*, 6, *golpe*, 17, *castigatu* 'zigortu', 20... Jatorrizko ezpainkari ahokaria sudurkari bilakatu da *magia*, 40, latinetikako maileguan.

**Sudurkari ondoan** herskari ahoskabeak ahostundu egiten dira: *vorondatea*, 5, 89, *Sandu*, 5, 7, 88..., *igande*, 8, *nondic*, *ondasun* 'ondasun, ontasun', 8, 35, *ezcondu*, 56,... baina salbuespen bat edo beste bada: *-mentu*: *pensamentu*, 3, 23..., *sacramentu*, 4, 60, *prometimentu*, 7, *mandamentu*, 8, 12,... Hau, dena den, morfologia-kontutako har daiteke orobat.

**Bokal artean** latineko herskari ahoskabeek beren horretan diraute: *vorondate*, 5, *Trinitate*, 5, 36, *virtute*, 36. Igurzkari ahostunak batzuetan bederen erori egiten dira: *aitus* 'adituz', 1, *Erreina*, 7<sup>24</sup>, *aren beyra*, 11, *veiraturic*, 33, *beiracendutela*, 94, *galdeiten*, 20, 21, *eyteco*, *eynendu*, 52, *eytendu*, 77, *ezaumentu*, 86, *ezauceco*, 89, *guticoat* 'pixka bat', 94... Ez beti, alabaina, ezta hurrik eman ere: *itza adicearequi*, 17, *adycen estituenac*, 58, *adicera emateco*, 90, *eguin*, 1, 18, *eguite-*, 3, 9, 19, 35, *Jangoycobat*, 10, *guticobat*, 84, *egon*, *egotera*, 95...

2.2.5.4. *Txistukariak*

-[l]-ren atzetik **igurzkari eta afrikatuen arteko neutralizazioa** dugu batzuetan: *0 Dultze*, 7, baina orri berean: *dulzetasuna*. Hau, dena den, grafia kontu hutsa izan daiteke, bietan [c] eduki baitezakegu. *Falsu*, 8, ere badugu, eta *mansoac*, 16 (hau, halaz ere, berria bide da).

-[n]-ren ondoan igurzkariak afrikatzen diren ere ez da segurua gehienetan: *gerruncean*, 13, *enzutendu*, 62, *pensatu*, 94, 95,... Kasuren batean, ordea, afrikatzea argia da: *lencheago*, 74. Cf. *onlasse*, 73.

-[r̄]-ren ondoan ez dakigu igurzkariak afrikatzen diren, grafia ez baita argia: *orzizute* 'ehortzi zuten', 6, *berze* 87..., *zorzi*, 92, baina *merchede*, 42, 89 (< *merced*, -rz- > -rtx-)<sup>25</sup>.

-Herskari ahoskabe aitzinean [s] > [ʃ] dugu: *estaquitenei*, 1, *gaistoetatic*, *gais-taqueria*, 3, 51, 52<sup>26</sup>, *egunorosco*, 5<sup>27</sup>, *gaitustenei*, *emaste*, 6, *ilen orstea*, 12, *estaquienari*, 13, *estu cer erran gucia*, 20, *persequicen gaitusten*, 24, *estire* 'ez dira', 32, *Semea esta Aita*, 32, *Aitac estu engendracen*, 33, *joaten estiren*, 39, *apartacen esta*, 40, *estugu erraten*, 42, *zor gaitustenei*, *estionari*, *estio*, 45, *ebec estitugu eyten*, 48...

24 Hau dudazkoa da hitzaren jatorria gaztelaniazko *reina* izan zitekeelako. Cf. Berriainen *erregia*, TCOM, 110. or.

25 Ikus SHLV, 293. or.

26 Hau ez da segurua, honen azpian "gaixto" ere egon daitekeelako

27 Dena den, hemen instrumentala dugu tarteko, eta hau geroxeago diogun bezala -s da. kasu berean daude *negarresco*, *misericordiasco* (7)

Baina ez beti: *excaizazula*, 5, *entendazen expadugu*, 27, *iguzquia*, 34, *expadu pagacen*, 57, *expadu licencia*, 70, *expadu ematen*, 71, *expadago*, 73, 74, *azquen*, 77, *Misericordiazco*, 78, *dizquio*, 94, 95, *eta expadago seguro*, 95.

-Hitz hasieran **z-** dugu: *cerbizazen*, 54, 89, *zervizuari*, 77, **tx-** (itxuraz): *choil*, 55, 77, 87, 93, **x-**: *chussencenditu*, 88.

-Hitz barruan **-x-** izan genezake *mereji*, 7, *merementu*, 79, 87... hitzetan, baina beti **-j-** eta **-g-** idatzirik ediretea honen kontra mintzo da. Elkanoko Lizarragak, gainera, beti *mereji* du, *ajola* bezala.

#### 2.2.5.5. Sudurkariak

*Magia*, 40, maileguan **b-** > **m-** eta **VnV** > **VØV** dugu, hots, latineko ezpainbiko ahokaria sudurkari bilakatu da, hurbileko sudurkariarekiko edo honen aztarna zatekeen **î-**ren sudurkaritasunarekiko asimilazioz. Bokal arteko **-n-** ere galdu egin da, euskaraz ohizkoa denez. Hitz barruan **-mb-** dugu *conveni*, 84, hitzean, eta **-n-** > **-r-** *arima-n*, 40.

#### 2.2.5.6. Albokoak

Latineko bokal arteko **l** euskaraz **r** bilakatzen da: *vorondatea*, 5.

#### 2.2.5.7. Dardarkariak

Bokal arteko **-d-** dardarkaritu egiten da inoiz edo behin: *verere*, 9<sup>28</sup>. Jatorrizko **-n-** **-r-** bilakatu da *belaurico*, 94, hitzean.

#### 2.2.5.8. Kontsonante multzoak

##### a. Hitz barrenean

**-nst** > **st**: *istante*, 4, 5<sup>29</sup>.

**-nd** > **n** dugu kasu batean: *Poncio Pilatoren manuaren azpian*, 6, *Eliza Ama Sanduac manacenduenean*, 9.

**-nr** > **ndr**: *ondracea*, 8<sup>30</sup>, baina ez beti: *Nai estutenac honrraric*, 92.

**-inf** > **inf** nahiz **if**: *infernu*, 6, 38, *ifernu*, 11, 20, 38, 39, 45.

**-ldin** > **lin** *balin*, 51, 79, morfeman.

**-mb** > **mb**, erdarazko *conveni*, 84, maileguan.

##### b. Sandhiak

**-t + d-** > **t**: *ematen baitiote*, 88, *deizen baitire*, 13, *gueldicen baytire*, 77.

**-t + z-** > **tz** dugula dirudi, baina ez da segurua: *beguira baizeude*, 39.

28 Elkanokoak ere *berere* ibiltzen du. Ikus, esaterako, *UIGPL*, 153. or.

29 Gaztelaniaz ere, seguru aski, aldaera hau erabiliko zen orduan, orain bezalaxe.

30 Hau gaztelaniari ere lepora dakiok.

- nt + b- > np: *Seme galampat*, 33.
- nt + k- > nk: *galanqui*, 43.
- z + l- > zl: *ezlizaque sustentatuco*, 74.
- z + b- > zp: *entendacen ezpadugu*, 24, *ezpadu pagacen*, 57, *ezpadago*, 95... (ikus txistukariei eskaini puntua).
- z + d- > st normalean, baina zt ere bai (ikus txistukariak).
- z + g- > zk (ikus txistukariak) *ezcaizazula*, 5, 45.
- z + z- > tz dugula dirudi, baina z hutsa ere izan daiteke: “*ezeuca berce morderic?*”, 38.
- n + d- > d, behin: “*naydu...eguydezagun*”, 71.

### 2.3. Morfologia

#### 2.3.1. Deklinabidea

##### 2.3.1.1. Obar orokorrak

a. Elizalderen lanean, Muzkiko testuetan bezalaxe, ez dugu aurkitzen erakusleak izenondo direnean Lizarragaren lanetan eta hegoaldeko goi-nafarraz idatzirikako beste testu batzuetan ohizkoa den tarteko belarea: “*Gracia orrequi cer ondasun dugu?*”, “*obra onequi...*”, “*aren beyra ceuden Arima Sanduayec*”, 11, “*Andre andiori*”, 48, “*aumentu ori*”, 67,...

b. Bihurkaritasuna azaltzeko *ne(u)re burua*, *ze(u)re burua*... erabili beharrez aditz laguntzaile iragangaitza ibiltzen du behin bederen: “*Beirazaitte...eta...icusicozara*”, 73. Hau itzulpenaren ondore ohi den morrontzari zor zaio, beste hainbat gauza bezala.

c. Noiz edo behin *elkar* erabili ordez laguntzaile iragangaitza darabil: “*beti biac acompañacendire*”, 75.

d. Behin gutxienez euskaraz ohizkoa den artikularen ordez *bat* edireten dugu: “*Cer da Oliadura? / Arimaren azquen convalecencia espiritualebat*”, 77.

##### 2.3.1.2. Deklinabide kasuak

#### a. Absolutua / partitiboa

Galdetzailea *nor* ‘nor’ (aditza singularrean zein pluralean dagoela), 47, 93, 94, *cein* ‘zein’ (aditz singular nahiz pluralez lagundua), 23, 28..., *cer* ‘zer’ (aditza singularrean eta pluralean duela), 20, 22, 23, 24, 29, 65... dira.

Hemen ez dago gauza gehiegi iruzkintzeko. Nabarmenena, agian, ergati-bo pluralaren hondarkiaren agerpena da, Ø espero genuenean. Hau kasu bakar batean aurkitu dugu, erdararen eraginez, antza, eta gainerakoetan mugabea ongi egiten da: “*Cergatic dembora gucietan gure etsaiec perseguicem gaitusten / Cer etsaiec dire oyec?*”, 24, baina “*Cein Persona eguince guizon?*”, 36, “*Cer ondasun ecarcendigu...?*”, 68,...

Beste aldetik, *bague* ‘gabe’-rekin Elizaldek gehienetan ez du partitiboa (-rik bokal atzean, -ik kontsonante ondoan) ibiltzen, salbuespen mordoxka

izanagatik ere. Hortaz, arruntenak honelakoak ditugu: “*egua bague: justicia, edo necesidad bague*”, 51, “*intencio ona bague, justicia bague...*”, 58...

Deklinabide kasu honetan dauden izenordain-izenondo eta determinatzaile hauek ditugu: *zu*, 19, 20..., *gu*, 6, 38, 44..., *au*, 17, 76, *ori*, 48, *ebec* ‘hauek’, 9, 14, 49..., *obec* ‘hauek’, 60, *ebec beroc* ‘hauek berauek’, 41, *oyec*, 7, 32, 39..., *ayec*, 11, 16, *bera* ‘bera’, 49, *berac* ‘berak, beraiek’, 92, *berce*, 8, 59..., *berce...bazuc*, 59, *ior*, 8, *yor*, 28, *edocein*, 20.

## b. Ergatiboa

Galdetzailea **norc** ‘nork’ (aditza singularrean beti, sujetuari dagokionez) 41, 50, 53, 57..., **ceinec** ‘zeinek’ (dugun adibide bakarrean aditza pluralean dago: “*Ceinec dute...*”), 79, eta **cerc** ‘zerk’ (aditza singularrean, sujetuari dagokionez), 56, 60, dira.

Hondarkiak hauek dira: singularrean **-ak**, pluralean **-ek**, plural hurbilean **-ok**, eta mugagabeen, **-(e)k**.

Ageri diren izenordain-izenondo eta determinatzaileak hauek dira: *nic*, 33, *guc*, 5, 27, 34, 42..., *ceurorrec*, 69, *berac*, 29, 65, 88, *ebec* ‘hauek’, 54, 58, *ayec*, 74, *yorc ez*, 30.

## c. Datiboa

Galdetzailea **nori**, 61, 62, da (zehar-osagarria singularrean dago).

Batzuetan ez dago komuntadurarik aditzaren eta zehar-osagarriaren artean: “*Eguin beardugu oracio Ainguiruei, eta Sanduey?*”, 46, “*Cer erreberencia eguin bearda imaginey?... Sanduey cer oracio eytendugu?... oracio ebec estitugu eyten jangoycoari, eta bere Amari?... Bay: baña Sanduen medios escazen da Jangoicoari, eta Sanduey ere bay...*”, 48,...

Hondarkiak hauek dira: **-ari** singularrean, **-ei** normalean pluralean, baina noiz edo noiz **-eri** ere bai, **-ri** mugagabeen.

Ageri diren izenordain-izenondo eta determinatzaileak hauek dira: *berari*, 61, *guri*, 42, *oni*, 30, *orri*, 18 (artikulu-balioa du hemen), *oyey*, 88, *ayeri*, 45, 66, *yori* ‘inori’, 55.

## d. Genitiboa

Galdetzailea **noren**, 78, da.

Maiz **aren** ibiltzen du gaurregun **bere** ibiliko genukeen tokian: “*Christoc governaturic, eta aren* (Kristoren) *Lecuan... Kristoren sacrificio bat, eta aren* (Kristoren), *eta aren* (Kristoren) *viciaren (...)*”, 61. Beste horrenbeste gertatzen da, inoiz edo behin, **Ayen**-ekin.

Behin genitiboa eta leku-genitiboa darabiltza, hitz berari erantsirik: “*Erranzquizu Elizaren mandamentuac / Elizaco Mandamentu Sanduac dire borz*”, 60. Beste batean leku-genitiboa darabil, genitiboa espero genuen tokian: “*Bay: Eliza, eta Elizaco escomecacioa despreciacen duenac*”, 53. Guzti hau testua itzulpena izateari leporatu behar zaiola dirudi.



Hondarkiak hauek dira: singularrean **-aren** dugu eskuarki, baina behin edo beste **-an** laburtua ere edireten dugu; pluralean **-en** dugu, eta mugagabea **-ren**.

Izenordain-izenondo eta determinatzaileak hauek dira: *enea*, 42, *neure*, 18, 19, 33, *zure*, 6, 21, *ceure*, *zeure*, 3, 5, 7, 21, *arren*, 3, *aren*, 11, 22, 36, *bere*, 4, *beraren* (egun *berau* erranen genuke), 86, *gure*, 3, 5, 7, 38, *geuren*, 5, 9, 81, 87, *ayen*, 16, 17, 46, *onen*, 7, 55, *orren* 'horren', 95, 'berorren', 19, *eben* 'hauen' 14, 81, *berceren* 'besteren', 58.

#### e. Soziatiboa

Galdetzaileak **Norequi**, 47, 88, 94, eta **Cerequi**, 23, 60, dira.

Hiru kasutan plurala dugu, mugagabea behar lukeelarik. Cf.: "*Cein obrequi cervizazen da Jangoycoa?*", 25. Beste bitan singularra edireten dugu, mugagabearen orde. Cf.: "*Au nola eguytenda, edo cein podorearequi?*", 76.

Hondarkiak hauek dira: singularrean **-areki** dugu, pluralean **-eki**, eta mugagabea **-(r)eki**:

Izenordain-izenondo eta determinatzaile hauek ditugu: *zeurequi*, 6, *arequi*, 71, *gurequi*, 82, *ayequi*, 66, *orrequi*, 35, 56, 94, *edoceinequi*, 17.

#### f. Instrumentala

Behin instrumentalaren aldamenen soziatiboa dugu, *eta*-k juntaturik, irudi duenez erdarazko *con* emateko, bi kasuetan: "*Ezconduet nola eguynbeardute vere Andrequi? / Amores, eta cordurarequi*", 54. Beste batean instrumentalarekin batera motibatiboa dugu, *edo*-k juntaturik, itxuraz gaztelaniazko *por* emateko: "*Damubat Jangoycao (sic) ofendituas, Jangoycoaren castigoaren veldurres, edo becatuaren itsusitasunagatic*", 68.

Hondarkiak hauek dira: singularrean **-as**, pluralean **-es**, mugagabea **-(e)s**. Determinatzaile bakarra *oyes*, 90, dugu.

#### g. Motibatiboa

Galdetzailea **norengatic**, 62, da. Hondarkiak, berriz, hauek: singularrean **-agatic**, **-arengatic**, eta pluralean **-engatic**. Izenordain hauek aurkitu ditugu: *enegatic*, 19, 18, 38, *gure gatic*, 7. *Argatic*, 18, 38, adizlagun moduan erabilia dago, 'horregatic' adieraz.

#### h. Destinatioa

Bitan gutxienez espero genuen adlatiboaren gainean eraiki destinatiboaren orde, genitiboaren gainean eraikitakoa edireten dugu: "*Disponi gaytecen, azquen finarendaco*", 77, "*pensamentu gaistoendaco, ocasio gaistoendaco*", 80.

Genitiboaren gainean eraikitakoak honako hondarki hauek ditu: singularrean **-arendako**, pluralean, **-endako**. Izenordainak hauek dira: *neuretaco*, 59, *guretaco*, 71, *ayendaco*, 80.

Inesiboaren gainean eraikitakoan galde-hitza **zertaco**, 23, 27, 61,... da. **Ceinetaco** ere azaltzen da, baina erlatibo batean erabilia, ez galde moduan. Hondarkiak hauek dira: singularrean **-(e)ko**, pluralean **-etako**, eta mugagabe-  
an **-(e)tako**. Izenordain bakar bat dugu kasu honetan: *ontaco* 'honetarako', 94.

### i. Inesiboa

Galdetzailea **non**, 48, da. Hondarkiak hauek ditugu, bizigabeekin: singularrean **-(e)an**, pluralean **-etan**, eta mugagabean **-tan**. Izenordain eta determinatzaileak hauek dira: *ontan*, 7, 20, *artan*, 28, 50, *ebetan* 'hauetan', 43, 44, *ayetán*, 56. Bizidunekin, aldiz, **-aren baitan** dugu singularrean, eta **-ren baitan** mugagabean. Izenordainak hauek dira: *bere baitan*, 30, 87, *aren baitan* 'bere baitan', 38, *gure baitan*, 44, *gueurenbaytan*, 81.

### j. Leku-genitiboa

Singularrean **-ko** dugu, eta mugagabean **-etako**. Determinatzaileak *ontaco*, 93, eta *artaco*, 95, dira.

### k. Adlatibo soila

Galdetzaileak **ceinetara**, 39, eta **certara**, 70, dira. Bizigabeekin hondarki hauek ditugu: **-ra** singularrean, **-etara** pluralean, **-tara** mugagabean. Izenordain bakarra *ontara*, 39, dugu. Bizidunetikiko galdetzailea, berriz, **norengana**, 76, da, eta singularreko hondarkia **-arengana**. Izenordain hauek ditugu: *zure gana*, 7, *gure gana*, 7.

### l. Muga-adlatiboa

Singularrean **-raño** dugu, eta pluralean **-etaraño**.

### ll. Ablatiboa

Bizigabeekin galdetzailea **nondic**, 6, 30, 47, da, eta hondarkiak hauek: singularrean **-(e)tik**, pluralean **-etatik**, eta mugagabean **-(e)tatik**. Izenordain eta determinatzaile hauek ditugu: *ebetatic* 'hauetatik', 17, *ayetatic*, 45, 80. Bizidunekin **-arenganik** dugu singularrean, eta **-enganik** pluralean. Izenordain eta determinatzaileak hauek dira: *arrenganic*, 49, *bereganic*, 56.

### m. Morfema-ezabaketa

Maiz deklinabide-hondarkiaren, edo hondarkia konposatua bada, osagai baten (edo hondarki osoaren) ezabaketa aurkitzen dugu, juntaduran<sup>31</sup>. Hona

31 Bestelako elementuen ezabaketa ere gauzatzen da. Cf., adibidez, "*Bi, eta irugarren mandamentuen gañean*", 62.

hemen adibide batzuk: “*igande eta jayetan*”, 9, “*vicien, eta ilengatic*”, “*peligro, necesidad, edo tentacioan*”, 24, “*Lembicico irurac jangoycoaren, eta berce laurac guretaco*”, 43, “*arimaren, eta gorpuzarendaco*”, 44, “*fede, esperanza, eta charidadearequi*”, 49.

### 2.3.2. Posposizioak

Honako posposizio hauek edireten ditugu Elizalderen dotrinan:

#### a. Alde

Leku-genitiboaz nahiz genitiboaz lagundurik edireten dugu: “*jangoyco gucis poderosoaren escuyeco aldean*”, 6, “*campoco aldean*”, 80, “*procuratu bere aldetic alduen becala*”, 57, “*imini bedi... ez Confessorearen aurcas, baycic aldean*”, 94.

#### b. Arte, erte

Genitiboa eskatzen du: “*ilen ertetic*”, 6, 11, “*genden artean*”, 64.

#### c. Aurkas

Genitiboaz lagundurik ageri da (ikus alde posposizioa).

#### d. Azpi

Genitiboa eskatzen du: “*manuaren azpian*”, 6.

#### e. Barren

Ablatiboa eskatzen du: “*Mandamentu gucietatic barrena*”, 94.

#### f. Gain

Genitiboaren laguntza du: “*gauca gucien gañetic*”, 8, “*Christioaren obligacioaren gañean*”, hots, ‘*kristauaren obligazioaz*’, 25, “*Credoaren gañean*” ‘kredoari buruz’, 27, ...

#### g. Kausa

Behin azaltzen da, genitiboaren laguntza duela: “*edo aren causas bercebatec eguytenbadu*”, 57.

#### k. Kontra

Genitiboa eskatzen du.

## I. Landa

Instrumentala nahi du: “*Bada berce oracioric, Pater nosterras landa?*”, 45, “*Berceric norda Ayta, eta Ama naturales landara?*”, 54.

## II. Medio

Genitiboa eskatzen du: “*Bay: baña Sanduen medios escacen da Jangoicoari*”, 48-49.

## m. Ondo

Genitiboa nahi du: “*viozaren ondoan*”, 3.

### 2.3.2. Aditza

#### 2.3.2.1. Ezaugarri orokorrak

a. **Iragana:** iraganeko adizkiek bukaerako -n galtzen dute: *ilce*, 3, *eracutsizue*, 22,...

b. **Geroa:** -n-ez akitzen diren aditzekin geroa egiteko genitiboa ibiltzen du Elizalde: *eguinendut*, 4, *izanen da*, 30, *iraunen dugu*, 41... Behin orain Nafarroan barrena zeharo hedatua dagoen aldaera laburtua dugu, ordurako sortua zen seinale: *egoinlizaque*, 75.

c. **Aspektu ezburutua:** aspektu ezburutua aditzera emateko zenbaitetan -tzen morfema partizipioari itsasten zaio: “*cergatic onesicenzaitudan*”, 19. Nominalizazioetan ere beste horrenbeste gertatzen da (ikus beherago). Ez beti, halaz ere: “*usten dituztenac*” ‘uzten dituztenak’, 93.

d. **Subjuntiboa:** batzuetan partizipioa ibiltzen du: *ezcaizazula utzi*, 26, *onesidezagula*, 26, ... bestetan aditzoina: *salvazaizala*, 4, 47, *libera gayzani*, 23,...

e. **Agintekera:** aditzoina ibili ohi du eskuarki Elizalde: *libera gai(t)zazu*, 4, 5, 45, *santificabedi*, 5, 44... baina ez beti: *etorribedi*, 5, *eracutsidazaguzu*, 7...

f. **Ahalezkoarekin** aditzoina ibiltzen du beti: *issil daiteque*, 58, *ezin escapadayteque*, 80.

g. **Komunztadura** falta da, batzuetan, aditz laguntzailearen eta osagarri zuzen edo zeharkakoaren artean: “*Ongui entendazen badugu Credo, eta Articuloac*”, 26, “*erranbearditu becatuac seglarey?*”, 71. Beste batzuetan ergatiboaren morfema falta da, aditza iragankorra delarik: “*Cer naidu erran Christioa?*”, 21,...

h. **Aditz-izenek** osagarri zuzena genitiboan dute maiz: “*ezpadu licencia ayen absolviceo*”, 70, ... Ez beti, ordea: “*eriac visitacea*”, 12.

i. **Partizipioak** partitiboa hartzen du beti, sekulan ez -ta (< eta): *jarriric*, 6, *ungituric*, 22, ...

j. **Aditz laguntzailearen ezabaketa** hamabi aldiz ediren dugu<sup>32</sup>: “*gracia nola erdechicen, eta aumentacenda?*”, 36, “*eta gauza necesarioac ucacen, dudacen, edo ignoracen dituenac*”, 50,...

k. **Ordena berezia**. Behin autore klasiko batzuek ibiltzen duten ordena berezia ediren dugu: “*baña ez arima, eta ez gorpuz apartacen esta divinidadetic*”, 40<sup>33</sup>.

l. **Nominalizazioa: utzi eta eman** aditzek aditz-izena adlatiboan nahi izaten dute: “*ezcaizazula utzi tentacioan erorzera*”, 5, “*jatera ematea gose duenari*”, 12. **Damu izan** perifrasi partizipioaz lagundurik joaten da: “*damudut...orren ofendituas*”, “*damudut zu ofendituas*”; **lagundu** aditzak aditz-izenaren leku-genitiboa eskatzen du: “*cerc lagunduco digu casto izateco?*”, 56, **debekatu**-k absolutua: “*debecacendigute edatea*”, 63, **jakin**-ek inesiboa: “*Nola jaquinendugu esperazen, eta escazen?*”, 26, **joan**-ek partizipioa instrumental kasuan: “*joan beardu...icuisis*”, 94, eta **obligazio(a) eduki** edo **izan, desobligaturik egon** perfrasiak aditz-izena adlatiboan: “*berce aldian dauca obligacio eguia erratera...berriz confessacera*”, 95.

Batzuetan **-tze** morfema partizipioari itsasten zaio, ez aditzoinari: *onesicea*, 8, 26, 49, *asicean*, 24, *onetsiceco*, 89... baina ez beti, ezta hurrik eman ere: *ebastea*, 8, *usmacea*, *uquicea*, 15,...

## II. Bestelakoak

-‘Eman’ adiera duen **i-** erroko adizki pare bat azaltzen dira: *digula* ‘eman diezagula’, *iguzu* ‘eman iezaguzu’, 44.

-**Sinestatu** aditzak **genitiboa + baitan** nahiz **Ø / artikulua** eska dezake: “*Sinestadezagula jangoycoaren baitan*”, 26, “*Sinestacendut Aita Jangoyco*”, 27, “*Sinestacendut Sanduen Comunioa*”, 41.

-**Mintzatu** aditza iragangaitza da: “*minzazengara*”, 47.

-**Itzuli** aditzak inesiboa eskatzen du: “*Convertitu, edo itzulicire Christoren gorpuz, eta odolean*”, 74.

-Ez dago beste testu batzuetan ohizkoak diren *egondu*, *bidaldu*, *izandu*-ren modukorik.

### 2.3.2.2. Paradigmak

#### 2.3.2.2.1. Indikatiboa

##### a. Adizki trinkoak

###### a.1. Oraina:

a.1.1. **Aditz iragankorak**: *daquite*, 1, *daucazu*, 1, *dute*, 16, *dut*, 19, *dauca*, 21, *ditu*, 22, 43, *daqui*, 33, *daucate*, 39, 86, *dio* ‘esaten du’, 51, *dacusazu*, 86, *drama*, 96.

32 Kasu hauetako bat aski bitxia da: “*Bada batec janbaleza bi libera Ostia Consagratuac, ezlizaque sustentatuco? / Bay jauna. / Eta edan baleza pintabat Calicetic ordituco?*”, 74.

33 Cf., esaterako, Kardaberaz *Ondo Illicen Icasteco, eta Ondo Illicen Laguntceco Egercicioac*, Tolosa, 1816.eko argitalpena, liburutik ateratako adibide hauek: “*eroac baño triste-ago vicico ezguera*”, 8, “*gauza onic eguingo ez del*”, 19, “*Medicnac desengañatcen ez dituzte*”, 20, “*Dembora gueyago izango ezta*”, 26,... Elkanoko Lizarragak ere badu adibide bat edo beste: “*Deuséc etzaitela lotsa: Guiciá passatzendá: Jangoicoa aldatzenezzá:...*”, DCC, 51. or.

a.1.2. Aditz iragangaitzak: *da*, 3, *zaude*, 5, *zara*, *da*, *dago*, 6, *gaude*, 7, *dire*, 9, *dago*, 12, *doaie*, 13, 73, *doac*, 36, *gara*, 42.

a.2. Iragana:

a.2.1. Aditz iragankorrek: *ceuca*, 38.

a.2.2. Aditz iragangaitzak: *cego*, 30, *zeude*, 39.

## b. Laguntzailedun adizkiak

b.1. Oraina:

b.1.1. Aditz iragankorrek: *eguindu*, 1, *barcacen ditugu* 5, *zor gaituste*, 5, *sinesta(t)cen dut*, 6, 7, 9, *padecicen dute*, 17, *onesicenzaitut*, 19, *passacendituste*, 20, *galdeitendiotte*, *erratendiotte*, 20, *persegucien gaituzte*, 24, *eracustendigu*, 26, *errandugu*, *erratendugu*, 27, *eguitengaitu*, 35, *ematendio*, 36, *eguytendiogu*, 61, *debecacendigute*, 63, *barcacendizquio*, 68, *ematen dizquigute*, 78, *imincendigu*, 80, *sinestacenduzu*, 86, *ematenbaitiotte* 'ematen baitie', 88, *emandizquigo*, 90.

b.1.2. Aditz iragangaitzak: *salcen da*, 1, *eguitendire*, 9, *aurquizen gara*, 24, *deicenzayo*, 30, *tocacen zaizquiotte* 'tokatzen zaizkie', 60.

b.2. Iragana:

b.2.1. Aditz iragankorrek: *padecituzue*, 6, *gurucificatuzute*, *ilzute*, *orzizute*, 11, *goardatucituste*, 12, *erredimitu guinduzza*, 23, *garaitucitue*, 25, *eman cigu*, 42, 89.

b.2.2. Aditz iragangaitzak: *ilce*, 3, *sartuguina*, 38, *convenicicaigu*, 38, *itzulicire* 'bihurtu ziren', 74.

b.3. Geroa:

b.3.1. Aditz iragankorrek: *eguinendut*, 4, *erdechicodute*, 16, *erranendiotte*, 17, *jaquinendugu*, 26, *estio barcatuco*, 45, *eynendu*, 52, *erranendugu*, 52, *lagunducudigu*, 56.

b.3.2. Aditz iragangaitzak: *izanendire*, 16, *salbatuco da*, 28, *icusicozara*, 73.

## 2.3.2.2.2. Subjuntiboa

### a. Adizki trinkoak

a.1. Oraina: *alabatua dela* 'alabatua izan dadila', 4, *digula gloria* 'eman diezagula', 44.

## b. Laguntzailedun adizkiak

b.1. Oraina:

b.1.1. Aditz iragankorrek: *salvazaizala*, 4, 5, *ezcaizazula utzi*, 5, *mereji dezazquigun* 'merezi ditzagun', 7, *eguindezaten*, 19, *errandezala*, 20, *libera gayzan*, 23, *esperadezagula*, *onesidezagula*, 26, *escadezogungatic* 'eska diezaiozun', 42, *guarda gaizala*, 45.

b.1.2. Aditz iragangaitzak: *gueldidadila*, 44, *oroit gaitecen*, 89.

### 2.3.2.2.3. Ahalezkoa

a. Adizki trinkoak: *ezindagoque* 'ezin egon daiteke', 75.

#### b. Laguntzaile-dun adizkiak

b.1. Oraina:

b.1.1. Aditz iragankorrak: *ezin cumplidezaquegu*, 27, *ezin engaña gaizaque*, 28, *ezindezaque* (*pagatu*), 57

b.1.2. Aditz iragangaitzak: *faltadaiteque* / *salbadaique*, 28, *errandayque* / *issil daiteque*, 58, *ezin baru dayteque*, 64, *ezin guertadaquioque*, 96.

### 2.3.2.2.4. Agintekera

#### a. Adizki trinkoak

a.1. Aditz iragankorrak: *otoiz eguizu*, 7, *erranzquizu* 'erran itzazu', 29, 49, 60, *iguzu* 'eman iezaguzu', 44.

#### b. Laguntzaile-dun adizkiak

b.1. Aditz iragankorrak: *eguinzazu*, 4, 6, *libera gaitzazu*, 4, *emandazaguzu* 'eman iezaguzu', 5, *barcadazquiguzu*, *barka iezazkiguzu*', 5, 44.

b.2. Aditz iragangaitzak: *santificabedi*, 5, 44, *beirazaite*, 94.

2.3.2.2.5. ke-dun adizki ez-ahalezkoak: *dateque*, 31, 34.

### 2.3.2.2.6. Baldintza

-*janbaleza...ezlizaque sustentatuco*; *edan baleza...ordituco* (sic), 74, *eramanbaliz... egoinlizaque* 'eraman balitza... egonen litzateke', 75<sup>34</sup>, *utci bazute* 'utzi balute', 75.

### 2.3.2.2.7. Aditz modalak

*il biardugu*, *eguin veardugu*, 3, *naidu erran*, 21, *naizueil*, 37, 38, *cumplitu naiditu*, 56...

### 2.3.3. Atzizki eta bukaerak

-(ki)(ro): *firmequiro*, 19, *ongui*, 26, 69, 71, 77..., *verriro* 'berriz', 37, *milagrosoqui*, 37, *galanqui*, 43, *ordinarioqui*, 46, *ligeroqui*, 58, *principalquiro*, 62, *comunqui*, 64, *facilquiro*, 83, *obequi*, *ciertoqui*, 86, *betiroco* 'betirako', 87, *gaizqui*, 95.

-ari: *becatari*, 6.

-duria: *jaquinduria*, 15.

34 Lizarragak *balezki* darabil, ez *balitz*. Ikus, konparaziorako, *UIGPL*, 178. or.

-io: *christio* (< \*kristiao) 'kristaua', 3..., *arracio* (< arrazoi < razón) 'arraioa', 1, 69, 88, *Comunio*, 7, 41, *ocasio*, 56, *Confesio*, 68, 94.

-ione: *pasione*, 81.

-keria: *gaistaqueria*, 51, 80.

-kide: *adisquide*, 75.

-mente: aditzondo mailegatueta ibiltzen du, batzuetan euskal atzizkia dutenen aldamenean: *solamente*, 21, 32, *infinitamente*, 29, *milagrosoqui* / *milagrosamente*, 37, *perpetuamente*, 37 (*beti* ere erabiltzen du testuinguru berean), *eternamente*, 41, *solamente* / *bacarric*, 49.

-mentu: *pensamentu*, 3, 23, 55, 56, 80, 94, *sacramentu*, 4, 23, 27, 60, *prometimentu*, 7, *mandamentu*, 8, 12, 23, 49, 88, *entendimentu*, 15, 89, *entendamentu*, 15, 33, *urriqumentu*, 17, 94, *consentimentu*, 45, *juramentu*, 51, *atrebimentu*, 52, 88, *merigimentu*, 78, *meregimentu*, 79, 87, *ezaumentu*, 86, *movimentu*, 91, 92.

-oso: *poderoso*, 33, *afrentoso*, *glorioso*, 38, *Misericordioso*, *piadoso*, 93.

-tasun: *dulzetasun*, 7, *ondasun* 'ontasun', 'ondasun', 35, 'on', 77, *itsusitasun*, 68.

-tate: *Trinitate*, 5, 22, 30, 36, *Vorondate*, 15.

-tu: erdarazko -do partizipio-bukaera -tu-ren bitartez euskaratua dago: *Letratua*, 53, *necesitatua*, 55, *ocasionatuac*, 56, *confianza sobratuac*, 60, *Apetitu desordenatu bat*, 84

-tze: *vicice*, 7, *erioze*, 6, 38, 71, *jayoze*, 66.

-xe: *Onlasse*, 4, 32..., *berlasse*, 4, *Alasse*, 32..., *lencheago*, 74.

-zale '-tzaile': *Criazale*, 6, 10, 35 (baina *Criadore* ere bai, 52), *Salvazale*, 11, *Glorificazalea*, 11, 36.

-zio: *obligacio*, *devocio*, 3, *concebicio* 'kontzepzio', 4, *erresurreccio*, 7, *barcacio*, 7, *confirmacio*, 10, 67, *comecacio*, 10, 72, *oracio*, 23, 36, 56..., *bedeicio* 'bedeikazio', 17, *tentacio*, 5, 24, *comparacio*, 40, *peticio*, 43, *condicio*, 46, *supersticio*, 50, *escomecacio*, 53, *conversacio*, *ocupacio*, 56, *Oficio*, 59, *sacrificio*, 61, *disposicio*, 66, *satisfacio*, 68, *atricio*, 69, *contricio*, 68, 70, *exercicio*, 80, *Inclinacio*, 81, 84.

## 2.4. Joskera

### 2.4.1. Oharrak

a. Harridurazko perpaus bakunetan aditzak eraman ohi duen -(e)n falta da: "...*cein ciertoa da*", 38.

b. Ordena batzuetan erdararena da: "*baña zordutenac penabat*", 36, "*escaceco merchedeac*", 42, "...*eguiteco erreverencia*", 48, "*Sinestazen duenac supersticioetan*", 50, "*Ematendu gracia barcaceco becatu pasatuac*", 67.

### 2.4.2. Juntadura

#### 2.4.2.1. Emendioa

"*obligacio daucazu, eta arracio*", 3, "*soin batetic berceraño / eguincazu onelasse / eta nic eguinendut berlasse*", 4, "...*irurac dire golpebates: eta alare Aitac engen-*



*dracendu Semea*", 34, "Nor dire Misericordiosoac? / Choil piadoso direnac: *naiz campocoequi ere*" 'baita kanpokoekin ere', 93.

#### 2.4.2.2. Hautakaritza

- "Cergatic becatua gauza itsusia den, *edo cergatic castigatuco nauzun*", 20, "Bada becatuic ez eguiteco nola erranendugu? / Bay, *edo ez: Christoc eracustenduen becala*", 52.

#### 2.4.2.3. Aurkaritza

- "Eta ezcaizazula utzi tentacioan erorzera: *baicic liberagaizazu gaicetic*", 5, "Arima ilzen estuena, *baña gaizquicenduena*", 82.

### 2.4.3. Menderakuntza

#### 2.4.3.1. Konpletiboak

##### a. Berezkoak:

- "Bigarrena, *sinestacea, jaiocela... Virgen gueldicencela...*", 11, "baña alare naydu, *arequibatean, guc ere eguydezagun satisfacioa*", 71.

##### b. Zehar-galderak:

- "Comecatu baño len cer pensatu beardugu? / Nor elduden Sacramentuan: *norengana elduden: nola, eta cer finequi*", 76.

#### 2.4.3.2. Erlatiboa

a. Izenburua aurreratua duten erlatiboak: "Apecec, *eta leitcen daquiteneac eracusteco, eta explicatceco uscaldun puro leitcen estaquitenei*", 1, "Cer dire pasioneac? / Gueurenbaytan *barrenean, furia, turbacio, edo colera itsucen gaitustenac*", 81.

b. Eredu erromantzeari jarraitzen zaizkionak: "...Seme *bacarraren baitan. Cein concebitubaize...*", 6, "...escuyeco aldean. *Nondic etorrico baita...*", 7, "Christo crucificatuaren figura: *non erredimitu guinduzan*", 23, "...mortale, *edo veniale: nola den gauza cergatic eguytenduen juramentua*", 51, "Erromaco Obispoa, *nori obeditu beardiogu*", 61...

##### c. Euskal eredu jatorrekoak:

- Behin gaizki egiten du erlatiboa izen erlatibatua, gaztelaniaren antzera, agerian eman nahi izateagatik: "Eta obec norc *jaquin bearditu? / Tocacen Zaiz-quieteney.*", 60.

- Gainerakoak egokiak dira: "eta *atracituela aren beyra cuden Arima Sandua-yec*", 11, "*laur butzu, edo lecu: Cerura joaten estiren arimendaco*", 39...

-Esaldia luzea denean izenburua hasieran ager daiteke, bukaeran -en morfema eta mugatzailea ditugularik: “*Cer da Comecacioa? / Jateco espiritualebat, arima sustentacen, eta vici eternoa ematen duena*”, 72.

d. bait-en bidez moldatutakoak:

Honelako lau ditugu: “*Becatu Capitaleac: deizen baitire mortaleac*”, 13, “*Eta laurgarrena (laugarren putzua) cein da? / Lenagoco justoena: Christoren beguirra baizeude*”, ‘Kristoren begira zeudenena’ edo. “*Cer ondasun eguytendu (Oliadurak)? / Garbicenditu becatuen erreliquia, edo señaleac: gure ignorancias, eta descuidos gueldicen baytore*”, 77, “*Cein da Virtuteric andiena? / Charidadea: oyey ematen baitiote bicia; eta chussencendituena*”, alegia, ‘horiei bizia ematen diena, eta zuzentzen dituen’, 88.

e. Erlatibo libreak<sup>35</sup>: “*Eta erratendiotenean errandezala Ave Maria, edo berce edocein oracio estu cer erran gucia baicic bi itz...*”, 20, “*Bada berce Mandamenturic cer jaquin?*”, 59, “*Justoen Purgatorioa: non daucaten cer purgatu*”, 39.

### 2.4.3.3. Kausazkoak

#### a. Aditz jokatuekin

##### a.1. Zergatik...-n:

Esaldi mota hau oso arrunta da, eta galdetzailea zergatik nahiz nola izan daiteke: “*Jangoicoa nola da gucis Poderosoa? / Cergatic bere vorondates eguiten duen naiduen gucia*”, 35, “*Cergatic naizue il Gurucean? / Cergatic erioze afrentosoa zen: eta argatic gloriosoago*”, 38,... Beste batzuetan zergatik-dun galderari -tzeko erabiliaz erantzuten zaio: “*Cergatic escacen da, egungo solamente? / Gu obligazeco, biar ere escacera, egun becala*”, 44, edo motibatiboa erabiliaz: “*Cergatic ematendigu vere gracia? / Bere ondasun andiargatic: eta Christoren meregimentuengatic*”, 35.

##### a.2. Zergatik...Ø:

Eraikidura mota hau ere maiztasun handikoa da: “*...espiritu pobre duten ayec; cergatic ayenada Cerua*”, 16, “*Bienaventuratuac dire Mansoac; cergatic ayec izanendire lurraren jabe*”, 16,...

##### a.3. Zergatik...bait-:

Behin bakarrik aurkitu dugu: “*Cergatic? / Cergatic baita Christo crucificatuaren figura...*”, 23.

<sup>35</sup> Perpaus hauen izaeraz ikus P. GOENAGAREN “Konpletiboak, zehargalderak eta erlatiboak” lana, *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1986, 155-189. orr.

a.4. Subjuntiboa + -gatic:

Hau ere aldi bakar batez ediren dugu: "*Cergatic eracusizigu deycera Aita? / Guc escadezogungatic Semearen amorearequi*", 42<sup>36</sup>.

a.5. nola...bait-:

Eraikidura mota hau ere behin bakarrik aurkitu dugu: "*Bada nola egon beardu odola Ostian? / Cergatic, nola adisquideac baytire, beti biac acompañatzendire*", 75.

b. Aditz jokatuabeekin:

b.1. tzeagatik: "*Irurgarrena ("Articulo Fedesco"), sinestacea, pasatuzuela pasio eta eriozea gure Salvaceagatic*", 11.

2.4.3.4. Denborazkoak

a. Aditz jokatuakin

a.1. -(e)nean: "*...barurcea Eliza Ama Sanduac manacenduenean*", 9, "*Ostia particendenean, particenda Christo?*", 73.

b. Aditz jokatuabeekin:

b.1. -tzean: "*beti Virgen gueldicencela, erdi baño len, erdicean, eta erdias gueros*", 11.

b.2. -tzerakoan: "*Etciteracoan, eta vesticeracoan, laur oracioac erratea*", 96.

b.3. baino len: "*Bada Cerua, eta mundua eguinbañolen, eze lecuric*", 30.

b.4. -as geros: "*Eta guizon Eguinasgueros?*", 35.

b.5. arteo: "*Ez jauna: consagratu arteo*", 76.

2.4.3.5. Kontzesiboak

-(balin)ba...ere: "*...barcendizquio becatu mortale guciac, aniz badire ere*", 68, "*Charidade gueyago daucana: edocein balimbadare*", 88.

2.4.3.6. Moduzkoak

-(e)n bezala: "*Eta barca dazquiguzu gueuren zorrac, guc barcacen ditugun bezala gu zor gaitustenei*", 5<sup>37</sup>.

36 Cf. Lizarragaren "...ción becála S. Pabloc gure trabaju pichsca momentubatecogóni darraio gloria-montio eternobát Céruan: animagaitzengátic trabajatzerá...", UIGPL, 170. or.

37 Gainerako lekukotasun guztietan becala dugu, eta bostgarren orrialdeko honengatik ez balitz, becala-ren azpian bekala dugula pentsa liteke, Elkanoko Lizarragak bezala, edo egungo Ergoieneko euskara bizian bezala.

2.4.3.7. *Baldintzazkoak*:

-(balin)ba-: “Ongui entendazen *badugu Credo...*”, 26, “*Eta corporal en necesidade balimbada?*”, 79.

2.4.3.8. *Helburuzkoak*

a. Aditz jokatu gabekin: “*ilce gure salvaceco / becatutic gu atraceco*”, 3, “*Eta guc certaco erratendugu? / Fedea confessaceco, eta artan gueyago confirmaceco*”, 28.

b. Aditz jokatuekin: “*Certaco da memoria? / oroit gaitecen beraren leguas...*”, 89.

2.4.3.9. *Ondoriozkoak*

-Hain...ezi: “*Cein bearra da ayen sinestatcea? / Ain bearra ezi ayen Fedea bague, ezin yor salba daique*”, 28.

2.4.3.10. *Alderaketa*a. *Berdintasuna*

-Hain...nola ‘bezain’: “*engendratuzue Seme galampat, ain Poderoso, Ona, Sabioa, Sandua, eta ayn Jangoycoa, nola Aita*”, 33.

b. *Gehiago/gutxiagotasuna*

-Baino...-ago: “*Ortaco lenago, edo zarrago da Aita?*”, 34, “*...eta guizon becala berce guciac baño gueyago*”, 40, “*Nayago galdu gauza guciac, jangoycoa ofenditu baño*”, 50...

c. *Gorentasuna*

c.1. Batzuetan ez da partitiborik azaltzen: “*...ondasun andiena becala*”, 26, “*Fedearen misterio principalenac*”, 29...

c.2. Beste batzuetan bai: “*Cein da Virtuteri andiena?*”, 88, “*Virtuteen suavidaderic andiena, eta perfectoa*”, 92,...

c.3. Behin gutienez genitiboa darabil, Ø edo -(r)ik-en ordean, ez bairik gabe erdararen eraginez: “*Cein da oracioen andiena?*”, 45.

2.5. *Lokailuak*

2.5.1. *Emendioa*: “*Nondic etorrigo baita ilen, eta vicien juzgazera. Alaber sinestacendut Espiritu Sanduaren baitan*”, 6-7, “*Cumplibedi zure vorondatea Ceruan bezala, lurrean ere*”, 5, “*Eta barcadazquiguzu gueuren zorrac, guc barcacen*”

ditugun bezala gu zor gaitustenei. *Eta ezcaizazula utzi tentacioan erorzera*", 5<sup>38</sup>, "Bigarrena, urtean bein verere confessazea", 9...

2.5.2. Aurkaritza: "*Bat dela irur: eta alere irurac dire bat*", 31, "*Bay: baña alare naydu, arequibatean, guc ere eguydezagun satisfacioa*", 71...

2.5.3. Ondoriozkoak: "...*eta negarres negarresco valle ontan. Ea bada gure Abogada izulizazu...*", 7.

## 2.6. Hiztegia

Segidan aipatzen ditugun hitzak ez dira, ezta alderatzeko ere, dotrinan azaltzen diren guztiak. Guk gehienbat testua dialektalki hobekien zehazten zuten morfemak bildu nahi izan ditugu, Elizalderen euskararen nondik-norakoa argiago erakustearren. Hona hemen beraz:

*A(d)itu* 'entzun' (baina ez meza), 1...  
*Ailcin*, 71, 88.  
*Andi*, 18, 48...  
*Aniz*, 18, 56, 83... *ain aniz* 'hainbeste', 18, 52.  
*Apec*, 1, 70. *Sacerdote* ere ibiltzen du, 71, 76.  
*Andre Dona*, 18, *Maria Virginia*-ri lagun eginez.  
*Arazi*, 58.  
*Arbol(e)*, 92.  
*Arrazio* 'arrazoi', 3, 69...  
*Arte*, 76, 87, eta *erte*, 6.  
*Asqui*, 49.  
*Atra* 'atera', 3...  
*Aurpegui*, 96.  
*Autsi*, 83.  
*Bague*, 4, 5... *dugu ia beti, baina gabe ere azaltzen da, behin, esaldi honetan: "berce ren ondasunac vide gavean ez deseacea"*, 8.  
*Baque*, 16.  
*Barcatu*, 67.  
*Barur*, 63, *baru*, 72, *barurtu*, 9, *barutu*, 64.  
*Bazco*, 9.  
*Beaz* 'behatz lodia', 23 (ikus *eri sarrera*).  
*Becatu*, 67, 83...  
*Bedeicatu*, 6, 17, 78, *bedeicio*, 17.  
*Beldur*, 15, 91...  
*Berze*, 87...  
*Bezala, becala*, 4, 9...  
*Borz*, 9, 60, *borzgarren*, 9.  
*Butzu*, 39.  
*Ceñatu* 'aitaren egin', 3.  
*Christio* 'kristaua', 21, 25...  
*Comecatu*, 9..., *comecacio*, 10...  
*Copeta*, 24.

38 Hemen eta, puntua gorabehera, juntagailutzat ere har daiteke, maiz autore zaharren puntuakera eta gurea bana baitira, ezaguna denez.

- Criatu*, 25..., *Criazale* 'sortzaile', 6..., *Criadore*, 19...<sup>39</sup>  
*Chiqui*, 92.  
*Choil* 'oso, erabar', 77, 87, 93...  
*Deus*, 96.  
*Ebatsi*, 8.  
*Echiden* 'itxaron'; 25, 86.  
*Eguia* 'egia', 51.  
*Egu* 'gaur', 5, *dugu*, *baina egun*, 'gaur, egun', 44, ere bai.  
*Elcar*, 33, 34.  
*Emaste* 'emakume', 6.  
*Emendatu* 'zuzendu', 19.  
*Ene* 'nere', 19.  
*Entendatu*, 24, 27,... *baina entendimentu eta entendamentu*, 15.  
*Enzun* (meza), 53.  
*Eraman*, 13...  
*Erdechi* 'lortu', 16, 36.  
*Eri* 'gaixoa', 12, *eri* 'behatza', 23, *beaz* 'behatz lodia', 23<sup>40</sup>.  
*Erioze*, 6, 38, 71...  
*Erran*, 45, 82, 83, 94...  
*Errespondatu* 'erantzun', 20, 21...  
*Erte eta arte* (ikus sarrera hau)  
*Escui* 'eskuin', 6, 40.  
*Espiritu*, 15.  
*Etcin*, 96.  
*Fruitu*, 6, 7, *frutu*, 91, 92, eta *fruta*, 92, *dugu*.  
*Galdein*, 20, 21...  
*Garaitu* 'buntzutu', 24.  
*Garizuma*, 9.  
*Gueiago*, 38...  
*Guelditu*, 39...  
*Goardatu* 'gorde', 12.  
*Guci*, 83.  
*Guerrunce* 'gerri', 13.  
*Guti* 'gutxi', 60, 63..., eta 'txiki', behin, 53. *Guticobat* 'pixka bat', 84.  
*Iduri*, 33...  
*Ifernu*, 11, 12, 38, 45, 82, erabiltzen du normalean, *infernu* behin gutxienez, 6.  
*Igan*, 6, 11, 40.  
*Imini* 'ipini', 37, 80.  
*Iruur*, 3, 14, 31, 68, 94... ibiltzen du eskuarki (bakarrik edo izen batez lagundurik), *baina iru* (izen batez lagundurik), 61, 86, ere bai. Hauekin batean, *irugarren*, 8, 9, 10, 13... eta *irugarren*, 5, 15, 82, erabiltzen ditu.

39 Corominasek dioenez (ikus *DCECH*, *Criar* sarrera), gaztelaniaz *criar* hitz herrikoia-  
ren eta *crear* kultismoaren arteko egungo bereizketa oso berria da, eta beraz, ez da harritzeko  
Hegoaldeko klasikoetan *criatu*, *Cria(t)zale*...eta beste ediretea. Bernat Etxeparek, berriz, *crea-  
tu* darabil.

40 Cf. Bidankozeko Mariano Mendigatxaren *eri* 'dedo', *eribiatza* 'dedo pulgar', *eri  
txinkar* 'dedo meñique', "Mendigatxa'k Azkueri Kartak, 1902-1916", *FLV*, 43, 1984, 55-  
127. orr. Izaban ere *eri biatza* (*eri ándia*-rekin batera) 'dedo pulgar' da, K. MITXELENA, "Con-  
tribución al conocimiento del dialecto roncalés", *SHLV*, 246-272. orr. Zuberoako eskualde  
batean bederen *ehi behatz* *dugu*, K. MITXELENA, "La posición fonética del dialecto vasco del  
roncal", *SHLV*, 273-297. orr.

*Izan* aditza erdarazko *ser* eta *estar*-en adierakide izan daiteke: “*Eta eriozeco orduan, ezpada Sacerdoteric...*”, 71, “*Ez: baña ongui da, ayen ailcinean confesio escacea*”, 71.

*Jangoico*, *Jangoyco* ibiltzen du normalki, 4, 22, 29, 42, 72, 82..., baina *Jaungoyco* ere ediren dugu, bitan, 77, 80.

*Jarri*, *eseri*’, 11.

*Jaun Done*, 18, *Miguel* eta *Joaniz*-i lagun eginez aurkitzen dugu. *Pedro* eta *Paulo*-rekin *San* azaltzen da, ordea.

*Jautsi*, *jautsi*, 38, 39.

*Jay* ‘jai’, 8, 9...

*Lagun* ‘laguna’, 56, 60, ‘laguntza’, 66, eta agian 78 ere bai, ‘lagun hurkoa’, 55...

*Laur*, 14, 18, 22, 81, 96..., *amalaur*, 12, 29, erabiltzen ditu, baina *laugarrena*, 8, 9, 10, 11, 13... baizik ez.

*Laudatu* eta *alabatu*, 46.

*Magua* eta *bayna*, 37.

*Manatu* ‘agindu’, 9...

*Merchede* ‘mesede’, 42, 62...

*Negar*, 16.

*Ofratu*, 62, eta *ofrezitu*, 77.

*Ondasun* ‘ontasun’ nahiz ‘ondasun’ (azken hau normalean), 8, 35, 23.

*Onetsi* ‘maitatu’, 49...

*Orai*, 6.

*Oraño* ‘oraindik’, 75.

*Otoiz*, 7..., eta *oracio*, 20...

*Prometitu*, 56.

*Proximo*, 8, 59., *proximo laguna*, 9, 83...

*Quendu*, 56, 82.

*Sandu*, 4..., baita erdaraz *santa* dugunean ere: *Trinitate Sandua*, 5, 36... *Sanda* zeruan dauden emakumeak aditzera emateko ibiltzen du, 18.

*Sinestatu*, 86...

*Soin* ‘sorbalda’, 4, 24.

*Trabaju*, 64.

*Trinitate*, 5, 36.

*Uquitu*, 15.

*Urriquimentu*, 17.

*Uscaldun*, 1.

*Uscara*, 1.

*Usmatu* ‘usai hartu’, 15.

*Virginia* (*izan*, 11...), baina *virgen* (*guelditu*, 11).

*Zervizu* ‘zerbitzu’, 77...

## ERABILITAKO LABURDURAK

DCC: *Doctrina christioarén cathechima*, Joakin Lizarraga, PV-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979.

DCECH: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*, J. Corominas, Gredos, Madrid, 1987.

OOV: *Opera Omnia Vasconice*, L.L. Bonaparte, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991.

FLV: *Fontes Linguae Vasconum*.

*SHLV: Sobre historia de la lengua vasca*, K. Mitxelena, *ASJU*, Donostia, 1988.

*TCOM: Tratado de como se ha de oyr missa*, Juan de Beriain, Iruñea, 1621. Argitalpen faksimila, Hordago, Donostia, 1980.

*UIGPL: Urteko igande guzietarako prediku laburrak*, Joakin Lizarraga, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990.

## LABURPENA

Lan honetan Muzkiko (Gesalatz) Fco. Elizalde idazle euskaldunaren *Apezendaco doctrina christiana uscaras* delakoaren hizkuntz azterketa egin dugu. Doctrina hau Iruñean argitaratu zen 1735ean, eta hizkuntzaren aldetik oso interesgarria da, hegoaldeko goi-nafarreraz idatzia baitago, Muzkiko hizkera gaurregun desagertuan, nahiz autoreak honen ezaugarri guztiak ez dituen aintzat hartzen, itxuraz. Hau garbi samar ikusten da M. Lekuonak aldizkari honetan argitara eman zituen herri bereko XVIII. mendearen bigarren erdiko testuekiko erkaketan.

## RESUMEN

En este trabajo hemos realizado un análisis lingüístico de la doctrina de Fco. Elizalde que lleva por título *Apezendaco doctrina christiana uscaras*, y que fue publicada en Pamplona en 1735. La obra está escrita en el dialecto llamado alto navarro meridional, en el euskara ya desaparecido de Muzki (Gesalatz), lugar de nacimiento del autor. Esta circunstancia hace que la obrita sea muy importante desde el punto de vista lingüístico. Sin embargo, y como se puede apreciar en la comparación con otros textos de la segunda mitad del XVIII escritos en el euskara del mismo lugar, y publicados por M. Lekuona en *FLV*, parece ser que Elizalde no refleja totalmente el habla de su localidad natal.

## RÉSUMÉ

Dans ce travail, nous avons réalisé une analyse linguistique de la doctrine de Francisco Elizalde, publiée à Pampelune en 1735 sous le titre d'*Apezendaco doctrina christiana uscaras*. L'oeuvre est écrite dans un dialecte appelé "Haut Navarrais Méridional", en Euskara de Muzki (Gesalatz) lieu de naissance de l'auteur. Actuellement, ce dialecte n'existe plus, circonstance qui rend cette petite oeuvre très importante du point de vue linguistique. Toutefois, et comme vous pouvez l'apprécier dans la comparaison avec d'autres textes de la deuxième moitié du XVIIIème écrits dans l'Euskara du même endroit et publiés par M. Lekuona dans *FLV*, il semble que Elizalde ne reflète pas tout à fait le parler de son village natal.



## SUMMARY

In this paper a linguistic analysis of the catechism written by Fco. Elizalde has been made. This catechism, *Apezendaco doctrina christiana uscaras*, was published in Pamplona in 1735 and it is very interesting under a linguistic point of view as it was written in the Southern High-Navarrese dialect, the one spoken in Muzki, the author's native vil-lage, and nowadays disappeared. However, the author doesn't wholly take into consider-ation the way of speaking of his village. This fact can be clearly noticed if we compare it with other texts written in the same dialect in the second half of the XVII century, and which were published by M. Lekuona in this journal.

